

zeruko ARGIA


IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 5 PEZETA

Pedro Eujenio Aranburu, Jatorriz Euskalduna



Gaifeko argazkian ikusten dan gizon ori Pedr. Eujenio Aranburu jauna da. Orain dala egun batzuk, bere etxean gizon armatu batzuk sartu eta berekin eraman zuten. Uste denez, peronista komandoren batek egin du egiteko ori. Aranburu jauna, jatorriz euskalduna da. Bere aita, Zestuakoa zan. Bere ahaideak, oraindik ere Tolosan bizi dira. Nafarroan ere, ahaiderik baduenez gaude. Dana dala, euskaldunen adiskide aundia da. Isaak Lopez-Mendizabalen adiskide miña. Ora dala, arte batzuk, Donibane Loitzuna etorri zan, eta an, emengo eta angio euskaldunek, jaialdi eder bat eskaini zioten. Buenos-Airesen diran euskaldantzariak ere biziro malte zituen. Noizik eta bein bera ikuster joan zitzaizkionean, oso abegi onez artu zituen.

Lurraren Inguruan, jlra-biraka




Rusok, «Soyuz 9-garrena» biali dute Lurraren ingurua egitera. Andriyan Nikolayev komandantea eta Vitaly Sevastyanov injenieroa ikus ditezke argazki ontan. Baje on bat opa diegu. Egingo duten guzia izan dedilla jakintzari bide berriak irekitzeko, gizona, mundu ontan, gero eta baketsuago eta zoriontsuago bizi dedin.

NON ZER

- «JAINKOA ETA HAURRAK»
Lasak 3 garrenean
- EUSKAL EKONOMIA MUGAREN BI ALDETAN
Zarautzek 3 garrenean
- URSeko ETORKIZUNA BERTATIK IKUSITA
Artolak 4 garrenean
- «L'AVEU»
Larresorok 5 garrenean
- AMOROTOKO MAIXUA 7 garrenean
- EUSKAL DISKA BERRIAK
Agirrek 7 garrenean
- IPUINA
Abeletzek 12 garrenean

UNESKO-ren aurrean TXILLIDÄren eskultura



Parisen bukatu berria da UNESCO-ren etxe berria. Biziro etxe dotorea da. Etxe ontan biltzendiran jaun-andrek, munduko kultura zahar eta berrien alde lan egiten dute. Etxe aundi orren ingurak, ahalik eta ondoenik apaindu eta edertu nahi izan dituzte. Ortarako, ezker-eskubi oraingo artista onenen eskulturak ezarri dituzte. Oien artean, gure Txillidarena. Momentu onta onenetakoa bezala jotzen dute gure artista.

PERUko GAIXOEK DEI EGITEN DIGUTE!

Zenbat umezurtz, nolako gosea, zenbat mixerri eta bakardade gaur Peru aldean! Lagundu dezaiegun esku zabalez. Edozein banketetan artuko dituzte ara bialtzeko eman nai ditugun diruak. «Caritas»-en kontuan, Perutarrei laguntzeko damazkigula esanez.



BERTSO BERRIAK Esnerik gabe utzi naute

EMAKUMEAK APAIZ

Holanda ortan gertatuakin ba det naikua komeri! Eskutitz baten eskabide au egiten didate neri: Emakumetaz an zer esan dan inuen ez dala ageri, apaiz-ekontza bezela garbi esplikatzeko zueri.

Esker oneko biotz jatorra or dijoa erantzuna, nola ukatu neri faborez eskatutzen didazuna. Baiña barkatu, aini illun dator Holandako oiarztuna, al dan garbien agertuko det irakurri ta entzuna.

Emakume ta gizonetzkuak berdindu nai gaituztela, orretarako eskubideak antxiñatik dituztela. Elizan ere serbitutzeko preparatu zaitzuztela, ontaz aurrera, jendeak apaiz eginda nai zaitzuztela.

Izaki danak zertako ziran ederkir asko zekiñak, egin zituan gizon-andreak eskubidetan berdiñak. Religioa eta kultura biezatz dira egiñak, ori ez al du erakutsitzen ikasitako dotriñak.

Emakumea elizkola da; ortara berez du sena, gizona baiño askoz leengo biguntzen da Jesusena. Martiri ore izan dituzte ez dakit zenbat dozena, eta zergatik ezin liteke izan apaiz bat zuzena

Mundu guzia ezin eraman aurrera gizonetzkuak, erri-nagusi jarri zaiñkigu emakume tajuzkuak. Elizan ere egiñak dira mirari galant askuak, Kristo lenengo ikutu zuan emakumean eskuak.

Kendu bearra emakumea menderatutzeko grina, zenbat mirari egin dituan konturatuko bagina. Jainkoa bera magal batian sortu ta gizon egiña, or dadukagu gizon guzien gañetik Ama Birgiña.

Egunen baten igo ezkeru pixu aundiko kargura, bizitza on bat erakutsitzen izan zazute ardura. Gizon guziak zuzentzen saia Jesukristoren modura, Oi! ofizio ederragorik agertu al da mundura!

Paulo Donea, bere denboran gauz onen aurka jeiki zan, apaiz eginda ez zuala nai emakumerik elizan: gauri artako esklabeentzat nunbait kargu gelegi zan, gaur ortarako arrazoirikan ez dakit liteken izan.

Edozein gauzak bezela ditu alderdi txar eta onak, meritorikan batere ez du probatu gabe egonak. Aldaketarik izaten badu uestez betiko zegoñak... Zer suertea izango duan abixatuta dagonak!

Nere ikuntza izan liteke norbaitentzat eskandalo, zer disgusto nerezat ere kalterik egingo balo! Ail Nero erri maltea gero zer datorikigun auskalo! Ez al da obe esnatutzia gelditu gabe bertan lo?

Gaia serio erabili det broman artu bearrin, naizta askotok naigo izan lengo oitura zarrin. Danak aurrera dijoaz eta gu zergatik baztarrian? Txantxetan ez da gauzarik artu Holandako Batzarin.

«IZAZPIK»
1970'ko Jorralia

Gaur ez didate esnerik ekarri, esan zidan andreak egurdian, ta biar ere ez omen didate ekarriko. Zer ba?

Baserritarrek opor egin omen dute ta, bi egunez, ez omen dute esne-tanorik saldu bear. Prezio ortan esnea saldua, arruinatzen ari omen dira, ez omen du konturik lanean aritzeak.

«Ainbeste pagatu beiak, ainbeste pagatu pentsuak, ainbeste kosta ikullua txukundu ta ondo jartzea, bei oiek goarnatu eziniñ jai ta aste, goizetik gauerañio lanean jardun, ta azkenean zertarako? Utsaren truk esnea emateko?»

Aditu izan bazenio Joxepari zer erretolika...

Esnerik ez dit ekarri, baiña kontua ugari bai orratik.

Ta zer esan diotzu?

Esan? esan ezer ez. Aditu bai, aditzen nituen naiko lanak. Ta ain «utsa» iruditzen aal zaio, guk pagatzen diogun litroko 10 peza ori?

Ori beste kontu bat da. Joxepa gaur, danak esplikatzeko zegoan, ta ori, galdetu ere gabe, esan dit.

Ara: bera oraingo konforme omen dago guk pagatzen diogunakin... baiña besteak, esnea zentralera biltzen dutenak, 5,50-etan omen daukate saldu bearra, ta ori, parra-carria omen da, utsa, ezer ez. Nikesan diot: paga dezazela zentralak 10 peza. Zuk zer ikusteko daukazu?

Ta arnasarik artzeko betarik gabe: zer ikusteko daukadan? asko, emakumea, asko.

Leengo, zentralak ez baiña gobernuak, erabakitzen duala salneurria: baserritarrei zenbat pagatu ta kaletarrai zenbatean saldu.

Bigarren, zentralak biltzen dituala, emen inguruko esnerik geienak, ta danak guk bezela kalera ekarriko balute, laster giñake saldu eziniñ.

Irugarren «de señora» bizi zera zu, ta nik etxerañio ekartzen dizut esnea, euri-jasak, txingorra, edo elurra ari badu ere, ta emen ibiltzen naiz eskallera gora ta beera, marmitak arrastatu eziniñ.

Laugarren, opor egite ezkeru dano egin bear degu; ez batzuk bai, ta besteak ez; bestela ez asi.

Ta azkenik auxe kontsola zaitzen: zentralak garestituko du esnea, utzi bearko dio gobernuak, prezio ori altxa bearra daukate peza bat edo bi, ta orduan... nik ere garestituko dizuet. Alere zer daukazu esnea baiño merkeago? ta zure aur oieri ardoo ez baiña esnea ematen diezu? zergatik? ohea dalako, noski.

Bueno, ba noa, beste artzaillei ere parte eman bear diet eta. Etzi arte.

Igande goizean atsegiña da, aize pixka bat artuz, mendira irtetzea. Leengoan nere jakin-miñak bultzata mendira joan mintzan adiskide baten baserrirañio. Zirikatu bear izandu nuen baiña azkenean, ona zer atera nion:

«Bai, uelga baserritarren aldetik ondo atera dala danak errespeta-tu dute; baita kalean artzailleei berak eramaten dianak ere. Oraingoan baserritarrok ondo elkar artu dugu. Ta ori zaila da konsegitzen, langile artean baiño zailagoa, oso sakabanatuak bizi gera-ta. Baiña motiborik ere ba da.

Ola segitze ezkeru baserria utzi ta kalera joan bearean gera. Ta ori azkenekoa da, batzuk, ni bezela, zaarregiak geraldako lan berri batean asteko, ta beste batzuk ez dutelako nai, baserriko lana geiago gustatzen zaielako kalekoa baiño. Aldegin baiño leengo gure esku-bideak defenditu bear ditugu, ta ortantxe ari gera.

Ez diogu iñori kalterik egin nai. Gure miña azaldu degu, zuek kalekuok ta esneari salneurria jartzen diotenak, konturatu zaitzeten.

Guk ere bizi nai degu, ta zuen mailan bizitzeko zuek aiañaxe esku-bide daukagu.

Ez esan neri, lurrak, beiak, ko-txea ta'abar, baserria ba daukate-la aberatsa naizenik. Ba daukat baiño bizitzeko bear ditudalako. Oiek saldu ta jaten badituz, ez etxe, ez lan-toki, ta ez jornal gelditzen naiz.

Oiek ematen dutenakin, oiek uzten didatenakin bizi bear dut. Ta ez didate uzten bizitzeko aiaña; ez

bieintzat, zuek bezela, zuen mailan bizitzeko aiaña.

Ta guk baserritarrok, zuek, kaleko langileok, bezin ondo, zuek bezin eroso bizitzeko eskubidea dugu. Ez aal da ala?

AZALDEGI

LABORANTZA - ARA-ZOAK GAUR EGUNEAN

Ahalik lasterren barazkietara jo behar gure lurlangintza

«Vizcaya Agrícola, Ganadera y Forestal» delako aldirikarrian azalduko artikulua baztuetan, Bizkaia-Gipuzkoaren lurlangintzaren geroak lan be-razia eskatzen duela ikusten genuen, bertako industria-herrietako jendearen pre-miki hornituko baldin ba-dira.

Gainera, gure lur-eremua Europaren epelalde eta bus-tian aurkitzen den zatia da; beste gaitetikoekin konpa-ratuaz, izozte handirik edo negute gogorrik, ezagun ez duena, behintzat, 0° azpirai-no askotan jaisten ez den giroa duena.

Horregatik, eta egonomiaz maila goiko batean edo «go-rakada» baten doan herria-dea delako, janari egoki-goa eskatzen ditu, eta hor-tarako teknika bereziz, hor-nitiko behar du: ez bakarrik, plastikoean edo kristale-pean «berotegiak» egina-z, bai-eta beroa, airea, ura, xo-morro eta landareen gaitzak behar den teknika oro erabi-liaz, barazkietara jo behar dugu, eta... barazki-sortzea bortsatuaz, gainera.

Barazki hitza alpatzean, zentzu zabalean hartu nahi dugu, hots, eltzeak, fruitu, lore, onto (xanpifoi) edo zernahi hazi eta berotegia-tako produkto adieraziaz.

ikus besterik ez dago. De-la trenbidez, dela bide-zaba-lez Europako hiri handietaruntz goazelarik, gero eta lurralde gehiago aurkitzen dugu plastikoean edo kris-talpean harturik «barazki bot-xatuak» sortu ahal izateko. Baina jokabide hau, hemen ere, mamitzen ari den zoz-zer dela oharitzen gera gaur egun. Adibidez, Durango al-deko laborari (nekazari) gaz-te, eta zenbait heldu ere bai, teknika berri horien baje-ginik, gogorri dihardute la-nean beste lekuetako aurre-rapideari jarraituz.


Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo dakite aruntz joaten. Nai dan aukera bidez beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki ditek merke ta ondo ematen.

Fernán Calbetón, 4
DONOSTIA

Sony da ametsaren izena



ariñena, telebistarik eskurakoiena (beatz batez eustekoa)

SONY edozein tokirako da
SONY'k 4 kilot'erdixatzen ditu
SONY 9'ko argi-laukiduna
SONY iru senti-giltzaduna
SONY aurrez-aurrezko abots geitzailleduna
SONY etxeko tximist-indarrez eta bateriz erabiltzekoa
SONY'k lau izki ditu:

SONY

Donostia'ko ordezkari: A. Mendizábal Obanos - Peña y Goñi, 5 - Urrut 10811 - Bilbo'ko ordezkari: J. M. Lara - Fica 8 - Urrut 239642
División Audiovisual: Irrati, telebista, magneto-soinu ta magnetikuiskinak. División Sobax: Elektro kontatzaille eskurakolak.

EZAGUTU EUSKALERRIA

BA-DA EUSKALERRIA

Ba-da Frantzia eta Espainia gobernuen mendea zaiturik bizi dan Euskalerrri bat. Oso antzinatik bizi da gure mendi eta sakonetan euskal-gizakia. Emen zebilen neandertal garaiko elzataria mendiz-mendi eta zokorik-zoko, orain dela berrogei-ta-amar mila urte, basidi, elur-auntz eta bas-akerren bila.

Eizetik bizi ziran gerotzikako Cro-Magnon-goi-zonak ere. Arrian eta ezurrean landutako millaka tresna eta irudi utzi dizkigute aitz-zuloetan.

Ortik dator gure euskal-gizakia: bular eta bizkar-zabal, gorpuz-mear, kopet-aundi, sudur-luze, kokotz-zorrotz... Gaur arte iraun digu gizaldietan zear gizakiera onerok.

Bi milioi eta erdi inguruera gaur Euskalerrriko zazpi probintzietako euskaldunok.

Ipar-aldean:

1962'an Lapurdik	152.000 bizilagun
" Benabarrak	35.000 "
" Xuberoak	20.000 "

Ego-aldean:

1965'an Arabak	173.203 bizilagun
" Gipuzkoak	567.566 "
" Nafarroak	427.697 "
" Bizkaia	914.121 "

EUSKALERRI OSOAN:

Ipar-aldean	207.000 bizilagun
Ego-aldean	2.082.587 "

Guzira

2.082.587 bizilagun

Azken urte aietan ugartitakoak kontuan artzen baditugu erraz irixten gera «bi milioi eta erdi».

Bi milioi eta erdi auek, ordea, ez dira elkarrekin zerikusirik ez duten arki batzuek. Elkarrekin senide ditugu. Lokarri sendoz lotuak daude: odolez, kulturaz, izkuntzaz. Izaera edo etnia berdiez korapillatuak daude.

Orregatik Erri baten izaera aztertzerakoan oinarri-oinarrian abenda edo etnieren izaera aztertu bear da.

Zer da abenda edo etnia?

Giza-talde batekoak gogo-lantze edo kulturaren ezaugarri berezi batzuk elkarrekin dituztenean, giza-talde orri deritzaio «etnia».

Gogo-lantzea, berriz, ez da jakintza bakarrik. Gizakiak ba-ditu oinarri-oinarriko giza-berezi batzuk: nola bizi, mundua nola ulertu, etorkizunerako nola gertatu... Bear olei gizakiak emandako erantzunen bilduma da gogo-lantze edo kultura.

Abenda baten nortasuna eta ba-dalazkoa, ez datoz Erri batek ezaugarri bereziak, bere-bereak, besteek ez bezalakoak izatetik. Ezaugarriak banaka beste errietan ere arkitu arren, bakarra eta berezia baldin bada ezaugarri oien bilduma, orrek egiten du etnia edo beste inuen ez bezelako abenda, bilduma orrek alegia.

Gaur bain ere baiño azkarrago aldatzen dira kultura baten berezitasun eta ezaugarriak. Baiña alaz guziz ere beti irauten duten alderdiak arki genezazke gurean.

Beraz, ba-da Euskalerrri bat. Ezagutu ditzagun pixkana-pixkana Erri orren berezitasun eta ezaugarriak.

EUSKAL EKONOMIA MUGAREN BI ALDETAN

Euskalerrriak bi zati oso berezituak ditu. Mugatik aruntzakoa ta mugatik onuntzakoa. Danak anaiak, baiña elkarrengandik urrutira bizi izandakoa. Ta anaiak senide izanik elkarrengandik urrut izaten diranean, bakoitza, bizi izan den lekutik berezitasunak bitzen dirjota. Ta bata besteren antza galdu oi dute.

Orrela gertatu da Bidasoz aruntz ta onuntz euskalerrriaren artean. Gipuzkoa ta Bizkaia aldeko urtutan lan-tokiak, fabrikak ugariaten zijoazela, joan den gizaldietan erdi aldetik, Gipuzkoa ta Bizkaia zearo aldatu zaizkigu.

Españi osoko ekonomia bultzatzen ta asintzen duten dirutzak, lanak eta kementa sortzen dira gure Euskalerrriko probintzietan. Azkene-ko ogei bat urtutan, Araba ta Nafarroa ere bildu zaizkigu. Industri duten erriaren artean, Gaur edertki esan ditzake gure Bidasoz onuntz erria erri aurreratu ta industriala dugula.

Beste aldetik berriz, Bidasoz aruntz dauden lurraldeetan, Auñamenditik aruntzako lurraldeetan, lana eskas izan da beti. Industri aundirik ez da ezarria izan. Etsibantak edo urtutak dakarten aberastasun-rik bizi oi dira oraindik erri askotan, ta lur sail txikiak izanik, nekazaritza ere ez da oso aberatsa, ba-tuz ere Frantziak dituen aukerako lur onenekin konpara baditugun.

Luzaro jota, ordea, zer dugu obe, kanpotarrak gure erria ekarrazten dituen fabriketako ta lantegietako kebidie aundien itzala, ala Bidasoz aruntzako bizibide erriko, apal eta aspaldikoaren gozotasuna?

Euskalerrria ezin esan genezake erri

ZARAUTZ

"JAINKOA ETA HAURRAK"

-ARESTI JAUNARI galdera eta oarketa zenbait-

Asiera asieratik, gauzak ongi mugatuak gelditu ditezien, ene artikulua gaurkoak deus ikusirik ez du Aresti jaunak aitazten duan Elizalde jaunaren idazlantxo batekin, eta, Aresti jaunak dionez, emen, ZERUKO ARGIAN argitaratua, ura ere.

Gaurko, nere egitekoa laneo maiean daukadan zure artikulua-rikiko da, Aresti jauna, ots, «JAINKOA ETA HAURRAK» deritzan artikulua-rikiko, ZERUKO ARGIAN azaldu dana, maiatzak 31 dituelarik, 3 garrengo orrian, ain zuzen. Leenengo, galdera auxe

Ala diozu, G.A., alpatu dugun zure lanaren leenengo zatian: «Bate-lore lotarik gabe diolako jaun horrek (Elizalde'k noski) baldin eta euskal eskoletan bere haurrei erlijioa irakasten ez badiote, erdal eskolara bidaliko dituela. Beraz harantzat euskara bigarren gradoko gauza bat da. Oso ondo iruditzen zait, enetzat ere halakoa delako.

Baina, mesedez, nik askotan hori esan dudalako hain garrazki eta samiki deskomekatuta banaute, deskomeka bezate orain gure jaun hori ere».

Oraindaño Aresti jauna mintzatu da.

Ordea, oraindik ni.

Adiskide! Badirudi zuk eta Elizalde jaunak ere bai, zuk diotenez, bizitzari dagokion baloreak eta idealak, mailaz maila, jarriak dituzte, la naiz ez berdin, bakoitzak bakoitzari dagokion bezala.

Ontan eta biontzat txalo bero bat, aurreratu gure jaun hori.

Elizalde jaunak euskeraren gaitetik zer ipini duan agiriaren dagoen gauza da, oker ala zuzen jokatu, naiz eta zuzen jokatu, nere ustez.

Ordea, zuk zerorrek zer jarri duzun euskeraren gaitetik-zerbait jarri duzula diotenez-naiz genduke jakin, bein betiko gure laifio eta irudipenak zurekiko desegiri ditezien, naiz, gure iritziz, ziur egon arren.

Izan ere zuretzat, zure aitopene-«bigarren gradoko gauza da euskara, aitatutako lerroetan argi eta garbi esan diguzenez.

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

Aitopene orri ordea «abstraktoa»

da, aiean dagoen aitopena, ma-mirik gabekoa.

Euskara «bigarren gradoko gauza denez», esan, adiskide, «leenengo gradoko» aukeramen orri zer ote duzun.

«Kareta guztiak lurrera erortzea» bearrezkoa balin bada, zeureari ere erortzen utzi ezaziozu, arren eta arren.

Orduan, emengo eta orko, Ner-bion'en ertzeako askoren irudipena ziurtasun batera bein da betiko itzuli-ko dala, diota.

Gero, berriz, erantzun bat edo beste ere bai.

Zure artikulua erdi aldega igo-roz gero, auxe diotzu: «—Gauden egoeran ezin mantentzen litezke bi ikas-tola-mota. Bata konfesionala, bes-tea akonfesionala. Bata integristen-tzat eta beste demokratizantzat. Be-raz danontzako eskolak egoteko di-ra, euskaldun hume guztientzako edukazio bakar bat ematen dute-nak». «Gainerakoa lujo bat da, gai-nera ezin paga dezakeguna».

Leen, galdera bat egin dizut.

Orain, aldiz, zenbait puntutan zu-rekin ados nago.

Bat bat nator.

Nere esku-besoak edatuz.

Gaizki ulertu ez badut, bi mota-tako ikastolen kontra zaude zearo.

Ni ere bai.

Ikastola bakarra bear dugu. Nik ere berdin.

Ordea, nolazkoa izan bear duan ikastola bakar onek, oker ez bari-joa, oso ederto azaltzen diguzu.

Ikastola bakar ori izango litza-keala konfesionala eta demokra-tenantzat. Zure barneko zergaitikoa edo arrazioa erraza da, alegia, gei-enak artarako aukeratuak eta jasoak diranez gero, betetik konfesionalak izango dira (geienak ala eskatzen dute eta) eta gero demokratikuak ere bai, gei-enen naiera moldatu bear dutenez gutxi diranak edo ez beintzat gutxien jokaerara geienak ekarri indarrez eta jauntxokeriz.

Emen zure pentsamentua eguer-diko argia bera baiño argiagoa de-la esan genezake.

Zure bularrak aintziñako euskal demokratiku zentzuan arnasa artzen dutela ere bai, eta ain nasaiki.

Bigarren galdera edo question bat

Jakiña! Artikulu baten neurri es-kasean ezin dena esan.

Ongi diotzu ikastola «bakarra» izan bear duala. Konfesionala. De-mokratikua. Baina, ona emen puntu gaizta. Pausu latza.

Zuk eskatzen duzun ikastola ba-karrak, konfesionalak, demokra-tikuak, nolaz bere kolokan eta ma-galean artuko ditu beste «presio-ko» sail oien aurrak; alegia, inte-grista eta akonfesional diren edo oiek aurkezten dituen aurrak?

«Miña eta ez txikia aurrak larrien eskuetan jostailu izan bearra!

«Auxe dok bizitza! Aresti jauna.

Alaz guztiz ere, orain bertan planteatu duan prolema ori, aska-tua, soluzio baten bidean jartzeko modua ba dagoela, nago.

Zuk ez duzu esaten itzez edo letraz. Baiña, bai izpirituz edo naiez lerro artean, agian.

Nolaz prolema zuzendu? Onela nere eta zure ustez. Ikastola baka-rra ura, konfesionala eta demokra-tenantzat izango litzakean eta dan ura, beste akonfesional sailletatik datozen umeentzat, leioz, atez, eta biotzez, irekia izan bear du, dan bezala.

Eta, begirun aundiz, aurrera ate-ra sail txiki orrek dituan eskubi-deak ere, noski.

Era ontan, ikastola, bakarra, kon-fesionala eta demokratikua, eta konfesionala eta demokratikua da-nez soilki, euskaldun ume danen-tzat egoteko izango da.

Emen akor gaude.

Datorren puntua gaitzagoa dela, uste dut.

Ikastola sozializatua

Diotzu zeure itzez: «Beraz danon-tzako egoteko dira eskolak, euskal-dun hume guztientzat edukazio ba-kan bat ematen dutenak».

Ni ere artan nago, eta barkatu, adiskide, eta zu baiño konkretogo, zure aurka ez bada ere.

Ikastola sozializatua bear da, iza-nik.

PROGRAMA BAT BAKARRA.

ANDERERNOA BAIÑO KOMISA-RIO POLITIKUA DAN ANDERERNOA OBE.

Ikastolako ormak eta aurrak mar-go batez jantzirik, alegia, margo urdiez, au baita fazisten margoa, Europa zear.

Guraso batzordeak utitaki! Joan ditezela bein betiko aize preskoa artzera.

«Miliziak, miliziatu armatuak bear ditugu, Aresti, Euskal-Erri zear, bu-larretan arma zearka dutelarik!»

Aurrak litzezko botakin ikastola-ko zoria zigortzen dutela, Hitler'en garaiko gudarmitil gazteen gila.

Aspila bat, gero, leenik etortzen danak arrapazka jan-go duana.

Bukatzeko, gero datorren lekua ere bakarra.

Baiña, zer axola dio gorputzak? Amaitu dezadan.

Diska datorren musika jatorra dator-kit:

«Egun da santimamiña benetan egun samiañ goiko zuek gorde dezala luzaro "aurren" arima».

Egun bakoitzak badakarkio gizo-nari jakite izpi bat.

Ordea, zure artikulua neri ar-gia palastaka.

Milla esker! —Agur eta agur!

JOSE LASA

Euskalerritik begira...

"PORTUGAL'DAR-PROBINTZIAK"

Joan dan astean hirugarren munduari buruz galdera batzuek egiten genituen, batez ere egun gertatzen diran zenbait gerta eta nahaspilik bere iturburua badutela agertarazi nahi nuke lanxo batzuen bidez.

Hirugarren mundua oso zabala da, eta bertan arkitzen diran herrialdeak oso desberdinak. Batzuek, politiko askatasuna lortu ta eskuratu dutenak, besteak, lehengo estadiuei lotuak. Badira euren lurraldeak aberastasunez beterik daukatenak, baita erabat pobreak arkitzen dituztenak ere. Herrialde batzuk Asian kokaturik daude, besteak berri, Afrikan t. a. Guk gaurko jarduna osatzeko, «portugal'dar probintziak» hartu ditugu gogoan: Angola ta Mozambike biak Portugal estatuari itsatsiak. Euren gaurko egoera ulertzeko Portugalera ere gogoan edukitzea beharrezkoa dela deritzagu.

Portugal barruan, zensura, indar haundiko izan da bere politiko bizitzan, izan ere nun nahi informazio ta heziketa lanak mugatzen direnean, agintaritzak, diktadura gehienean, ez du eragozpenik arkitzen euren eginbideak bete ahal izateko.

Dalako zensurak hiru puntu ditu oso zorrotzak Portugalen: Agintarien lanak eta jardunak kritikatzeko, sakonki aztertu ta agertarazteko. Bigarren, «pake»-ren aurka doazen ideak zabalarazten saiatzea. Ta azkenik kolonien askatasunaz, euren eskubideetat, mintzatzea.

Azken urte hauetan, Salazaren agintaritzapean, prentsa ta gaitzotzeko tresneri esker, portugaldarrek, Angola ta Mozambike, euren egiazko probintziak dirala diote, anaiak, portugaldarrik alegia.

Askatasun mintzatze bide ere badituzte euren arazo-bideak: «Beltzak askatasun giroan ez lirate ondo konponduko, ez daude hortarako ondo gertu ta preparatuak, ez ekonomiko arloan ezta politika arazoak behar bezala konpontzeko ere. Mosku, Pekin edo USA'ren inperialismoaren menpean erl ditezke, t. a.»

Portugaldarrek ez daude afrikar herrialde hauei zor zaizkaten esku-bideak praktikan jartzeko, agintariak ezekiz, ezta portugaldar gehienak ere.

XX-gn. mendearen erdi aldean, lokarturik geneukan Afrika, bere lo-zorrotik esnatzen zaigu, ta bertako herrialdeak askatasun amets-bidean abiatu nahi dute. Angola ta Mozambike, giro berri hontan, ez dira bazter-turrik geldituko.

Portugalek abertzale eraginari beldur diu, bizimodu hobe bat bertan sortarazi behar dela oharitzen zaizkigu, ta inbersolek bere joera erdi nabarmenduko dute. Ekonomiaz, berri, loturik daukete, «euren probintzi maiteak». Portugalek, Angolan ta Mozambiken ateratzen du bere zorrik ordaintzeko behar hainbat dibisa.

Angolan host milioe bizilagun daude, ta hauen artean, 200.000 pertsona europar jatorrizkoak, bertako aberastasunen jaun da jabe, bertako ekonomia iturririk agortuarazterako zapatuko litzukete.

Angolaren egoera ezagutzeko ez degu esku artan estadistika gehiegirik, izan ere agintariek ez dute hortarako gogorik erakutsi, zenbakiak, egia-eren agetzen direnean, batez ere, indar beldurgarri bihurtzeko ta. Eskolak gutxi ta eskasak, umetxoak gainetza dituztelarik, ez dute jendea heziketako behar bezalako egokierarik. (Europarrek badute eskola ugariak, hauenzat dabado, tokirik aski). Mozambikeren kultura maila, lur jota dagoela esan ditek Bortako gobernadoreak zionez, anafabeteak % raiño joxiaraztea espero dute. Sendakintza ta garbitasunari bagazozko, sendagile batek 17.000 bizilagun zaintzen ditu. Aurrean dakusguna, bada, etzagu oso pozgarri.

Portugaldar agintariak, abendakari ta razismorik ez dagoela non nahi kanpalki joaz aldarrikatu dute. Hortarako txuri-beltzak, danak nahasian, anaiakir daukalarik, argazkiak zabaltzen dituzte. Taberna eta jolastokiak ez dira ezereen berezide-bide, guztioz onartzen dituztela erakutsiaz gogor ari zaizkigu.

Errealidadea, ordea, besterik degu: batzuek goi mailan daude, europarrak ta bertako jaunxoak. Besteak berri, hauen menpean, lur jota.

Sufimendu lagarri honek herri maitea jator, ta abertzale zintzo ugariak sortarazi ditu. Afrikaner esnaldiekin batera, Angola talde burrukalaria sortzen da 1961 gn. Portugalen agintean pilotatzen joango ote zaien bildur dira. Abertzaleen indar horiek, beste zenbaitetik egin dutenaren antzera, herria militar indar menpean jartzen dute, indarkeriarren menpe jartzen. Eskabideak, bide onez, zintzoki ta elkarrizketaren bidez eger egerik etzagoela konturaturik, Angolaren alde mugimendu burrukalaria indar hartzen du (M. P. L. A. bere deitua). Portugaldarrek, ordea, gudari talde haundi baten bidez, herrialdeak menpean hartzen ta abertzaleak hiltzen dituzte gorrotzeko biterik.

Geroztik, Kongon, desterruan, sortutako UPA erdibitzen da ta abertzale indarrek euren batasuna galdurik, ahulduta, ez dute aurrerapen haundirik lortuko. Egun abertzaleak ipar eta Kongu muga inguruan daude, lurralde horiek euren lantzen dituzte. Baina, egun, indarrek sortu duan pakeak ezin lezake luzararo iraun. Orduan berriro «Biafra» berri bat sortuko da, ta behar bada, indar inperialistek menperatuko.

Geroxago, Mozambikek bere ekialdeko derroto. Behar bada ez deute Angola bezain aberats, baina baditu burri-mina emankorrak. Afrikan erdian kokaturik, oso estadu desberdinekin mugatzen da. Batzuek razistak, Rhodesia ta Egoafrika, Mozambiken sistema berdiña nahiko lutenak, ta Portugalgi laguntzen dituenak. Bestetik, berri, Tanzania ta Zambia ezkeriarrak aldamenen ditu. Estadu hauen influentzia haundia ta interesgarria izango da geroari begiratur.

Portugaldarrek mito bat egin dute, Portugal ez da erdibitu behar, guztioz familia bat osatzen bait dute. Errealidadea, ordea, besterik da. Gibraltar ingletzat jotzea hain pekatua laria bada, zergatik Angola ta Mozambike «batasun» mitoa bilazatu?

«Batasuna, batasuna...» herriak menperatzen dituen. Angola, Mozambike, zergatik ez eman zuri zor zaizuna? «Batasuna», mito... desegin eta kito.

MIKEL UGALDE

URSS - eko etorkizuna bertatik ikusita

«Kritikatzea beldurgarri eta erailgarri gertatzen dan une bereziak, iru dira: gobernuak zerbait egin aurretik, egiten ari danean eta egin ondoren».

A. Grosser

Richelieu kardenalak, Frantziako estadista ospetsu arek, bat edoren bat itzoko arrazoirik biltatu nai bazan, onek idatzitako SEI LERRO aski ziraala esan oi zuan.

Sei lerrotatik ondo pasa da oraingoan Andrei Amalrik, rusotar idazle kontestalarria. Liburu oso bat eskeini digu: URSS-eko oraina eta geroa aztertuz. Argitaratu berri, isileko azpi-jokuan, azterrian egin duela esan berriak ez. Eta noski, Siniavski eta Daniel, Solzenitsin, Grigorenko eta beste askoren bidea jarraitu bearra izan du; espetxean giltzapetu dute.

Ez ginatek arrituko, orainaldian, post-stalinismoan, modan darabiltena, egingo balute berarekin: «inter-natu eta tratamintuan jarri «klinikak baten Jokabide au gogorik gaitzetsi dute tinotarrak».

«Rusia guzian, errugabeekin bete-ta daukate espetxeak. Iraultzaile anitz eta errugabeak dituzte konzentrazioko zelatien eta soro-etxeak».

«URSS, gaur egun, burgesiarren diktadurapean arkitzen da, goi-mailako burgesiarren diktadurapean, aleman fasizista kutsuiko diktadurapean, Hitler-en antzeko diktadurapean». («Leninismoa ala sozialinperialismoa?». Pekin-gn. Erriaren Egunerokoa agertutako editoriala — Pekin Review Nr. 17 — April 29 — 1970).

Lenin-en eunkia ospatzean, idazian ikaragarri au argitaratu duten tinotarrak ez daude, noski, sobietarren diktadura azpian. Sobietarrek — eta ortan arrazoiri dirudi — erreboluzioaren mekanikaz irizita au dute: «GUZIA LIBURU BATETIK ASTEN DA». «Liburuetan gertatzen da istoria, esan zuan D'Assac».

Baifan artu dugun ariari utzi ga-be: Nor dugu Amalrik eta zer dio bere liburu ortan?

Amalrik, 31 urtetako idazle istorigile dugu. Pintatzaile talde baten, Gysulekin ezkondua. Kiev-eko Unibersidadeetik bidalia eta 30 illabetaroko Siberia deportatua isileko liburu batengatik («Derri-gorcan gramana Siberia-ra»), Geroztik, NOVOSTI berriak zabaltzeko ajetzian lan egiteko onartua, eta bidalia ostera. Manifestazio baten parte artu zuelako azien urteotan, amaika ofizio probatu du. Orainaldian, Moskutik 105 milatara dagoen Akulovo errixan aritzen zan labo-regintzan.

Eta giltzapera eraman duan liburuak izen-buru au du: «L'Union Soviétique survira t-elle en 1984?». (Fayard, 118 orrialde).



Amalrik eta bere emaztea.

Liburu onek duen garrantzia on-tatik dator: rusotar istorigile gazte batek an bertatik egifikio azter-keta izatek. Bere iritziekin bat ego-tela ala ez, aparte uzten dugun auzia da. Baifan ezagutu eta aztertu be-arreko deritzagu.

— oio —

Amalrik-ek dagien azterketan, URSS amiltzera daramaten lau gaitz nagusi aiatzen ditu, gaitz auk iren-sitiko eta lurperatuko dute, bere ir-tiz:

- Gogortutako burokrazia.
- Jakintsu geienen konformis-moa.
- Erriaren aserrea goratzen joatua.
- Txina-kin izango duten de-rrigorrezko guda.
- Eulak bezala ari dira ugaritzen burokratek. Menpetasun isilean jar-deutek daramazki agintera. Idearik ez dute. Berrikuntza batean, gaizpi-dea dakuste. Beren kezka bakarra, irauten jarraitzea da. Iniziatiba galdu dute. Defentsibari gorderik. Beren ikurra: «Iskanbillarik ez sortu, eta pakean urziko dizugu». Beren el-burua: «Guziak jarraitu dezala». Zaztaroko ezagutari zaigu.

• Idazlek, artistek, irakasleek, teknokratek eta unibersitariok, maila polit bat osatzen dute pribile-jiozko alkitian duten kulturagatik. Sobietarren erdi-maila dugu, URSS-

en ere pixkaka osatzen ari dan «es-pezialisten» maila. Giza-talde onek naiago du erdipurdizko bizitza, pae-taren kontra buruaz golpeka artitza alperrik dala uste bai du. Milioika gupril dituen makiña baten gupril-txo bat bezela artitzen du bakoitzak bere burua. Eta naiago dute obeditu, aukera zail baten eragozpenak ja-tatea baino, Noiz-beinka agertzen diran erdi-beltzak, oso noiz-beinka-koak ditugu.

• Erriaren aserrea geitzen dioja, ondo zeratu gabeko eserrea bada ere oraindik. Ez dioja bere eserreen orain duen rejimenaren aurka, besterik ez-du-ta ezagutu. Baifan bai rejimen-aren alderdi batzuen aurka: kontro-lak, jornal txikiak, eskas-aldiak, es-tualdiak. Sistema bera gogortzen di-joan neurrian, ekonomia aurrerakun-tza bera ere gain-beeraka joanen da. Orduan leertuko erriarren aserren-mi-na, gogortasun bizian: orduan gor-tatu bide diranak, aurreko bi erre-boluziotako markak autsiko dituzte.

• Txinakin gerrarik egin ga-be ezingo gera pasa, 1975-1980 tartean leertuko dala uste du. Sobietarren erreboluzioak eman duen martxaren arabera neurtuz, Txinako errebolu-zioa sartua dagoke IRUGARREN FASEAN: ZABALKUNDAREAN. Orrelako gerra baten bidez bere men-pekoasuna autsiko luke, bere arazo anitz konpondu eta nagusio ar-tu munduan. Asia nai du bertatzeko. Egoaldea, bizilagunek beterik dago. Iparaldeak, alderantziz, utsik du: Si-beria aundia, sobietarren sortaldeak gaur, baifan egunen baten euren-a izana.

Noski, ez duela Txina-k gudarik egingo, atomika bonbaz eta gaitzot-zeko eskuarmaz ondo osatu arte. Baifan osatu bidean dioja, 7.000 ki-lometrotako muga orietan, gerrilla burutuan sarturik ikusiko du bere burua URSS-ek.

Eta bin. bitartean, gaurko bi Ale-maniak bat egingo dute. Sortaldeko Europak ere, Rusiako inperialismoa lepotik eskutuko du. URSS barruko aberri zapalduak beren askatasun-aren alde altxatuko dira. Eta inperio gorria puskatzen asko da.

Amalrik-en krikak, Sajarov, Var-gas, Dijas eta beste batzuenekin antz bai du; bere liburu au ordea, futurologo batena dugu. Eta geroari igertzea, igarletza alegia, oso lan zaila eta arrikua aundioa. Ez du alperrik artu 1984 urtea, estatu to-talitariari buruz George Orwell-ek idatzi zuan nobela ezaguna gogora-ziat.

JOXE ARTOLA

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU-PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutsa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi - zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITIK IRITZETZKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak daukagu:

Mondragol	Gernika	Gaztelz	Azkoitia
Aretxabaleta	Zumarraga	Bilbo	Mungia
Elorrio	Elgoibar	Legazpia	Yurre
Barakaldo	Markina	Irun	Bermeo
Ondarroa	Bergara	Durango	Lasarte
Andoain	Altasua	Amorebieta	Sanurce
Plazentzi-Soraluze	Elbar	Azpeltia	Zumaya
Onati	Tolosa	Ernani	Donostia
Ormaiztegui	Pasai San Pedro	Zarautz	Iruia
Beasain	Errenderi	Sestao	Deba
			Anzuola

LAN-KUTXA ERRIKOIA

(Caja Laboral Popular)

DIRU-AURRERAPEN ALKARTASUNA

Zuretzako daukagu:

ELKARTASUN-LAGUNTZAK

KORRITURIK ONENAK

ILLEROKO SARIK — AURRELARIK ARTUEMANA

DIRU-BURUZPIDETAN

(Bizkaia)

DURANGO

«HERRIAREN ALDE»

«HERRIAREN ALDE» duzu anarkista usaiko Mao-zale dan talde frantses baten agerkaria (Gauche Proletarienne) Agerkariaren zuzendariak Epaia-mahaiaren aurrean agertu behar izan dute Estatuaren aurkako jokuan erori diralako. Bapatean Paris-ko kaleetan, garai bateko sorginku-azuko jafaldien autera, misika-indar-ak eraginda politza iz gaitzen arteko burruklak eratu da. Saint Jacques kalean sua ageri da, politzia ikasleen altxerik dabil eta nun nahi dago arnasa galarazteko he haina gausaia. Automobilien klaxon-otsa da eskaparateko kristalen lertzeak dakarren dardarak sorgin-jaiari giro berezi bat ematen diote.

Baina zer dala ta «Herriaren Alde» zuzentzen dutenak Epaillarien aurrean jarri ote dituzte? J. P. Sartre bera, agerkariaren zuzendari izanik, besteiri bezala berari ere eskua gainean jarri ez dituelako kezakentzen. «Herriaren Alde» Hitzaren ordez, Maorena agertzen duen katekisma duzu.

Agerkaria kontseiluz beterik dago ta norberaren esku ezer gutxi ta zapaltzaileen eskutan dana dagoelako, era gutziatoko sabotajeak erabiltzeko eskatzen du. Hala lantegiak marxia ondantzen edo herraminta oter erabiltzen duzunon, nagusiak ondantzen omen dira.

Erabiltzen dituzten arazoibide guz-
tiek erlijioso-kutsuz nahasturik dau-
de. Erdi-Aroan pekatuak abere zi-
khiñen antzera margotzen zituztenen
eran, gaurko nagusiak. P. C. F.-koak
eta U. R. S. S.-eko sobietarrak na-
razki ingurariak basterik ez dira
Gauche Proletarienne taldea osatzen
dutenazkat. Hala dago «naziarrak»
eta dandak labain berdinaz ebaki be-
haromen dira. Taldearen gudatea
alemanen alrka azpiko lanean jardu-
tzenen burruken jarraipena dala
diote. Kapitalistak, sindikalari-buruk
eta bertako komunistak, gurutze ga-
matuarekin edo bage, naziarren au-
reolaz horniturik ikusten dituzte.

Ze eratako burruka da hori? Ze-

rukoa bearko, lurrekoa ez bait da.
Ona ta txararen artean, edo ain-
gerua ta deabruaren arteko burruka
ez dira Frantziako politika-burruka-
ren irudi egokiak. Bi sail huts ar-
hizzen dian guda-lekurik ez duzu ne-
hoiz ikusiko. Gaitza orokorra ez da
garbiko agertzen. Gu ere ez ahal
gaude gaitz hortaz kutsaturik? «De-
na ala ezer ez» hitzekin lanitza da-
goen abestiak dion bezala.

Biartearen, hor duzu herria. Esta-
du frantsesak zenbait taldeetaren jo-
kaeraren aitzakiaz, hartzen ariden
arriku haundiko erabakiak isil isilik
onhartuaz.

Hor, Komunistak Alderdia, eragi-
leen protestarik gabe estalinismo
itsuenen jarraitzeko asmo berezie-
nekin.

Hor, C. F. D. T. bera, klasen ar-
brah cuandora edlau dard uad ra
teko burruka ametituri, bere kezka
politikari irienbide bat arkitu ezin
da.

Zenbait taldeko, borondate omen-
ez, egokere baten aldatetaren atze-
tik dabilzala, bera sendotzen duen.
Gizarteko indarren egokitasun larria
lertzeko ta beste egokitasun aurre-
ratuagora eltzeko, jakin behar da
egokitasun larri harek duan alderdi
ahulean josten.

Zenbait Alderdi aurrerazalek Ok-
zidenteko xistematan egokitu badira,
taldeetako ere gaur daramitien jo-
kaerakin xixtima bera sendotzeko bi-
dean ez ote diran ari, galdetzen diot
nere buruari.

Orain dala bi urte, maiatzak eka-
rri zizkigun zurrubilloak larri-aldi
baten agerpenak dira. Frantziako xis-
timaren desegokitasuna begietara
agertu da. Desegokitasun horrek
gaurko xixtima galduko du, baina
baliditza hau betetzen bada, alegia,
gizartearen desegokitasuna aztertu
ondoren gizarteko indarren arteko
egokitasun aurreratua baten bila
ahalegintzen bagera.

Dena ala ezer ez, aukera ximplee-
gia agertzen da.

D. IZA

«L' A V E U»

«Z» filma ikusgarria eman ondo-
ren (Graziako Lambrakis-arazoa),
bildo beretik orain ere, Costa Ga-
vrask beste filma ikusgarri bat
eman digu: «L'Aveu» (= «Aitorra»
euskeraz). Oraingo honetan Txeko-
slobakiako Slansky-hauziak. Honetan
eta hartan lehen mailako artista ba-
teak darama mintzaren haria: Yves
Montand.

Aste hauetan estrainaturik, harra-
botsa ez da tipia izan Europar.
Filma funtsean politikoa izanik, po-
litik ataldek eta alderdiek hitze-
gin dute goratik, Gehienek laudorioz egin
dute, «Z»-rekin bezala. Baina «Z»-ri
buruz fazistak arranguratu ziren be-
zalaxe, «L'Aveu»-ri buruz, komunis-
tak baserretu dira. Eta «L'Humani-
te»-ren bidez, Costa Gavras eta Yves
Montand salatu dituzte, «anti-komu-
nismoan» erori direla esanez. Hau
sinisten zail da, halere, bai Costa
Gavras eta bai Yves Montand eza-
gunak bait dira nun-nahi aurrerazale
eta sozialista gisa.

Egia esateko, bi filmen joera ba-
tasuna igartzen ez da zaila: bietan
Costa Gavras erresuma modernoa-
ren burokrazia kupidagabea salatzen
du. Baina hori salazarakoan, ez du
ortodoxia-langarik kasko barrun;
eta dagoen lekuan agerretzen du:
bai Ekialdean eta bai Mendebaldean.
(Nahiz Londonek, «L'Aveu»-ren az-
ken segietzetan, sozialismoan duen
itxaropena argi eta garbi adierazi).

Larriena, bestalde, ez da egia ager-
tzea, egia izkutatuta nahi izatea baizik.

Artur London konfiantzako gizona
zen Txekoslovakian 1951 arte: Briga-
da Internazionala eta Frantziako
Erresistentzia ibilia, Mathausengo
kontzentrazio-landan preso egona, be-
ti ere komunistak alderdiaren jarrai-
tzale, Txekoslovakia. Azterriko
Ministro-orde zen urte hartan. Ba-
patean, eta Stalinekin askotan egin ohi
zuen bezala, hamalau buruzari ha-
rrapatu zituen Moskutik etorritako
polizia izkutuak; eta presondegi-
tuak Txekoslovakia bereko zuden-
dari nagusi izan arren, bertako inork
ez zekien ezer: «goitik» omen zeto-
ren agindua. Horra hor dena. Ho-
rela altxatu zuten preso, hamalau-
ren artean, Slansky bera; alderdiko
sektario-burua hain zuten. 1951-eko
«purga» hartan hamaika alderdiko
aizindari hileraiz ziren. Artur Lon-
donek bere burua salbatu zuen; eta
gartzelatik irtetean idatzi zuen «Ai-
torra» liburuari esker dazkigu Pra-
ga-hozi famatuaren xehetasunak.

Tortura-mota eta etsiarazpide gu-
ztiak erabili zuten presoek aitorazte-
ko; eta eten gabe 22 hilabetetan
barrena London zigortuz eta aktuz,
azkenean honek, haurkide guziek
bezala, asmazio hutsa zen bere kon-
trako salakuntza zentzugabea goitik
behera «aitortu» zuen: trotsismo,
burgeskaria, amerikatarreko sala-
ritza, naziokaria burgestxia, dena
nahasirik.

Sinistu ezin ditezkeen miturretai-
rakino joan ziren haurtaria eramand-
ekoak; haurtarien egunean, eta tu-
rretik buruz ikasteko guzi-guzia xis-
tima birraren ondoren (ikasto-
lan ipuinak buruz eta hitzez hitz esa-
ten diren bezalaxe), eskini ziztzean
defentsa-eskubidea ere arbuatu egin



«L'Aveu» filmaren bi zati.

zuten: «kinka gaizto bat pasatzen ari
da aridua, eta isil zaitzete: barka-
tuak izango zarete». Tortura-arras-
tik ez zuten aipatu; eta, horrela,
«garbiki», heriotzara joan ziren, be-
ren eginenez arras damuturik... Stali-
nismoaren belzkeria osoa agertzen
zaigu hor nabarmenik. Frantz afak
(Pragatarra hau ere!), berriz piztuko
balitz ere, ez zukeen sinistuko! As-
matu zuten guzia baino haruntzago.

Artur Londone nemezteak berak
ere bere esker-gutuna bidali zien
agintariak, senararen okerreriak gai-
tzeiz: eta hunkigarria da benetan
unea, lantegietan gutun hori irratian
irakurtzen dela ikusten duelarik.

Dena egin dago, horretara: gauza
«garbi» ater da, Stalinen purga gu-
zietan bezala. Umezurtz errugabe
agertzen zaigu Maquiavelo!

Filmaren funtsa, beraz, ez da ja-
satzen arina: gordin agertzen da sta-
linismoa bere basakerian. Eta hau
ez dute denek egokiko. «Hori kon-
denatua izan zen», diote. «Zertarako
berri horretaz ari izango? Klase-
etsaiaren jokoa egiten dugu».

Nork egiten du, ordea? Geuk ala
stalinistek?

Alde batetik, izugarrikeria horiek
(bitimak miloika kondatzen dira) sa-
latzeko Krutxefek behar izan zuen
asardua neurtzen eta eskertzen ez
dakigula uste dute. Zernahi esana-
gik (eta hain trotsistek ez lidateke
gaiztetsiko) Komunistak Alderdiaren
parte haundi bat stalinismoan zegoen:
Errusian eta Errusitik at. Adorea
behar zen, benetan, burokraziaren
hiltzaileek argi eta garbi oldartzeko.

Baina bestetik, eta hauke da in-

portantea ene ustez: nola uler di-
teke (marxismo-leninismoaren orto-
doxiatik esan nahi dute) Kondaira-
Aurretik eta alienazio gutziatetik a-
tera behar ginduek Alderdi argitsu-
hasera-hasertatik halako muntroke-
riatan erortzea? Kapitalismoa erauzi
ondoren, agintaria ez bait da, omen,
herriaren ordezkaria baizik! Nork
sinetsiko du langileriak stalinismoa
nahi duela?

Idieien erosakeria maite edo behar
dutenek zer esango duten badakit:
«Antikomunista da! Vade retro!».
Ezaguna da madaikazio hori: fana-
tiko talde guzien hazkurtia da. Ez
du problema agertzen, ordea.

Kristauen Ebanjelioak XIII-garren
mendean eman zuten Inkisizioa. Mar-
xismo-leninismoak, ordea, sortuta
seguitan eman G. P. U. eta «garbi-
ketak»: Alain Krivine trotsistak as-
te honetan urteetan hasi zen stali-
nismoa Komunistak Alderdiak nagi-
sutzen, Hamabi mendeetatik hurrun
gaude!

Halere Erdi-Aroko Inkisizioa Fe-
dearen kontra mintzo da, Stalinis-
moa, beraz, Ebanjelio berrien kontra
mintzo da bortizki. Eta aitorzeki
kemen eskatu beharra dago. Nik
bederen hori eskatuko nuke, Mun-
dua behin eta betirako dena argitu
eta konpondu nahi duen teoriari es-
katzea bidezkoa da.

Soljenitsine eta Martchenko, eta
Pragako okupazioa eta ondorioak,
eta beste antzi gertara itsusi, Sta-
linen ondoko stalinismoaz mintzo
bait zaizkigu.

LARRESORO

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak.
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak:
gañera esne putzuak,
Olek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERE!

AZKENEKO EGUNAK!!!

«IZAGARRIZKO TRESILLO SALGAIK»

TRESILLOAK, SOFA-OEAK, LO-GELAK, ETA ABAR...

PREZIOAK ORAINDIK MERKEATUAGOAK

JARRAITZEN DUTE...!!!

ENTZUN PROBINTZIKUOK!

Montaketa eta etxera eramatea

ez degu kobratzen. UTSEANI

Amuebladora COMERCIAL HISPANIA. S. L.

Moraza, 3 eta 14 — DONOSTIA — San Marcial, 12 — IRUN

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Vergara, 11 - Urrut. 17751 - Etxekoa: 22700 - DONOSTIA

'PICCOLO DIVORZIO' EZKONTZ-AUSTE TIKIA ITALIN

(III)

Piccolo divorzio, Ezkontz auste ti-
kia dalata, ez da nolanaiko zalaparta
sortu Italiko lurraldeetan; bere
oayrsun-otsa edonun zabalitzen da.
Batikanoaren jokabidea salatua izan
da; ez du bear aintzat errespetatu
Italiko Estaduaren askatasuna; Eleiz
agindua bere sementizat bakarrik
izan ditzake; estatuarenak bere men-
peko guziak arapatu bear dituzte;
bijoa bere bidetik Eleiza Estaduaren
arazoetan sartu gabe. Ez datoz ba-
tera Batzar Nagusiaren erakutsiak eta
Batikanoak erabili duan jokabidea.
Erromako Gregoriano Irakasle di-
ran Diaz-Alegria espanarra, Pin pran-
tzes, ta Tufari Italikoa izan dira
batez ere salatzaileak.

Nork ez du ordea Ezkontzari bu-
ruz, Eleizaren erakutsia zalantzan
jarri: Batikanoaren jokabidea baizik
Italiko Estaduarekin. Lenen jarraitzen
du kristautzat Eleizaren agindua:
Alegia EZKONTZA AUSTI EZINE-
KOA DALA.

Beti autsi ezina ote ordea...? Elei-
zaren erakutsi au berriatua naiz,
Zoghby Gotzaiak onela zion Batzar
Nagusian: «Kontuan artzekoa da
erurik izan ez duan ezkontzidaren
egoera estu eta larria; gaizkoa, betiko
bakarrik gelditzen baita».

Le Divorce et l'Eglise (Eleiza ta
ezkontz-austea) deritzan liburu in-
teressgarria argitara eman du oraindik
orain Michel Leclercq teologariak.
EZKONTZ-USTARRIA BETI PUS-
KA-EZINEKOA ELEIZAN? Galde-
ra oni onoko erantzun garbi au da-
maio: «Egia da Eleizak ez duela
atzera egingo, ta biziki eutsiko di-
gola Ebujielarekin ain onartuta di-
gion erakutsi eta ezkontz austi aize-
ko Idealarri: Baña, Eleizak gai on-
tan artuta daukan neurriak, Zerga-
berriro azterketa zakon bat egin
ez? Eleizaren azterakoez ez dira neu-
ri oek, ta ezkontz-austi ezineko legea
bere baitan utzi-ta ere, oheagotu di-
tekene ez ote?».

Austi-ezinekoa dala ezkontza, ez
da bat batera erabakia izan Eleizan.
Politikoki, ta eztabaizda biziaz tar-
tean ziralarik, eratu izan da ezkontz
austi ezineko legea. Oitua ta jokabi-
deak ere, gai oni buruz, ez diti ber-
difikat izan eman eta an; Amazas-
pigarren gizaldiaren azken aldera,
bazeziken Eleiz agintariak ezkontz
ustaria gertakitsun ta arzu batuetan
oso-ki puskatzen, esate baterako es-
kontz batek bestearenganatu, ez-
kontza kutsutzen zuanean.

Oso-ki gabeko ezkontza puzkatu
leiken ezkontza dala erakutsi izan
oi da gure moral eskoletan; matri-
monio rato edo legetutako ezkontza,
baña argiz oso-ki gabekoa beti da
gai autsia izateko. Ezkontzduak argiz
batutzen diranean, oso-ki dute ez-



Erromako San Pedro plazan, bi gazte euren agiriekin

kontza; eskontz orriero osotutako ez-
kontza deritza (Matrimonio consu-
mado) Argiz osotutako ezkontza da
baliokoa eta autsi ezinekoa Beaz,
Sakramentu bezela ezkontzak balio
izateko, argiz bat egin bear dute
ezkontzak.

Gaur egunear ordea erakutsi au
austian jarria dute jakintsu askok.
«Gau batean, argiz batze utsez eziñ
diteke ezkontza osotu», diu Reinhard
Ipar Amerikar Teologak. Ez da as-
ki, gorpuzte bat egitea ezkontzduak,
diote gaur eguneko teologo, psiko-
logo ta Canonista aintzez, ezkontza
osotzeko; ortarako espiritu batasuna
ere bearrezkoa da; bikotearen bizi-
tzarako bien espirituen antolamen-
tu, elkar konprentitu eta maitatuz
alkarrekin gozoro biziitzeko. Argi
alkarte utsez ez, baizik senar eta
emazte bezela bien artean artu eman
zakon eta mamitsuak sortzen dira-
nean bakarrik osotzen da ezkontza.

Onela, alkarganako maitasun xa-
murreen osotua, ezkontz-sakramen-
tu sagarotua gelditzen da giza-mai-

tasuna. MAITE AAL EZINA ba-
liziozko arrasoi bear luke Eleizaren-
tatzat bat besteagandik ezkontzduak
betiko alidendu ta apartatzeko. Iritzi
onlan dagoala dirudi Carlos Raha-
ner onoko galdera au egiten duan-
ean: «Buru eta moral aldeik osotu
gabeko ezkontza autsi-ezinekoa izan
diteke...».

Ta... gure Eleizetan egiten diran
ezkontz asko Sakramentu ezkontz
ote...? Eleizarenkin ortu emanik ez
dutenak, sinismen zipitiz gabekoak,
erri ezkontza, Eleizara joan gabe,
gaurko giroan partagarri litzakelako,
Eleizara datozenak, EZKONTZAKO
SAKRAMENTUA artze ote dute?
Ezetz deritzaiz. Sakramentu aldeik
beintzat onoko oen ezkontz-ustaria
autsi ezinekoa ote da...?

Eleizak bere erakutsiak ez ditu
aldatuko; ezkontza kristautzat autsi
ezinekoa izango da. Jaungoikoa
batu zuana, gizonak ez beza banatu.
Jesukristok Eleiza bezela maite be-
za senarrak bere emaztea. Eta...
Nork ez daki Kristoren gureganako
maitasuna betikoa dala? Gauz aun-
dia ezkontzako Sakramentua, Jaun-
goikozko iru pertsonak bat egiten du-
ten antzera, bat izan bear dute kris-
tau ezkontzduak. Ezkontzen maitasu-
nak Kristok guri digan, maitasuna
adierazi bear du. Ideal aundia kris-
tau ezkon duen ideal ori. Baña gu-
zientzat egiña ote...?

Gaur eguneko pentzakera berri
oek naiko buru-auste ta arazo da-
karzite beren ondoren: Berez, ez-
kontz-ustaria betirako izan arren,
Bein edo beste eziñ ote ditek puz-
katu...? Osotua izan dan ezkontza
autsi-ezinekoa da; Baña... Noiz oso-
tuta gelditze ote ezkontza? Argiz
ez, espirituz ere bat egin bear
dute ezkontzduak beren ezkontza oso-
tzeko. Zenbaterako batasuna bear
ote ezkontza osotu eta Sakramentuan
biurtzeko? Batasun orren neurria,
Nork eman dezake...? Maite eziñ
dutenen azkontza puskatu al ditek-
ena da. Baña maite eziñ aal ori,
Nork neurtu dezake? Oitua utsez
eleizaz ezkontzen diranak, ez dirudi
ezkontz Sakramenturik artzen dute-
nik, Baña Zenbaterako sinismena
bear ote Ezkontz Sakramentuan
jabe egiteko...?

Arranopola, Badute, bai, nun jo-
ratu Teologo, Psikologo ta Kano-
nistak.

AROSTEGITAR JOK



AMERIKETAKO MIXIOLARI BATEKIN ALKAR-IZKETAN

Maiatzak 29. Etxe aldetik, Bakar-
ti. Irakutzen...

Zintzarriaren otsa. Nor ote dugu?
Etxabe'tar Agustín apaiza. Orain
dala amar urte Usurbilko Santue-
nea basarritik mixiolari Amarike-
tara joandako apaiz berria. Colon-
bian, Perun eta Bolivian ibilli ondo-
ren osterr opor-alditxo bat igaro-
tzera bere jaiotz-otzera etorria. Eka-
naren 14'an du erriko seme apaiz
eta bere lagun mixiolari batzuekin
elkar-meza ematekoa Usurbilko
eliz-nagusian.

1.—Aizu Agustín zer egoeratan
daude zuk ezagutzen dutuzuan Ame-
riketako erri oiek?

«Oso gaizki. Ipar-Amerikakin bat
eginiakdauden jauntxo batzuk zeoro
mendean daukate erria. Dirudun
aundi batzuen esku daude ondasun
guziak. Geienak oso beartsu, erru-
kari eta arloze bizi dira. Inkasen
garaitik asita gaur arte oso morol
jarriak daude. Gaur ere Ingletarra
eta Parisen ikasitako aberaskume
batzuk dira ango jaun eta jabe. Bes-
te gaierantzekoak ez jateko, ez
jatzeko, ez ikasteko eta ez gaitz-
aldietarako ezer ez dute.»

2.—Erria bat ere esnatzen ari aal
da?

«Bai. Batez ere ikastetxeetako
gazte jendea. Ez dute onartzen des-
bertintasun bildugarri ori. Onda-
sun-banaketa berdina goa eskatzen
dute. Berdintasun-zale porrokatuak
dituzte. Jainkoari esker. Ari dira
beartsuen seme batzuk ere ikasi
eta ikasi. Kostata baiña ari dira.
Auek, berriz, lan asko egiten dute
beren errietan eta lagun-artetan
jendea esnatzen.

Fidel Castro baten ametsen bizi
diri. Ba-dakite orduan ere pasa-be-
rrak izango dituztela. Baiña zer de-
montre orduan danak jasan bearko
dituzte estualdiak. Ez batzuk baka-
rrik orain beazela.»

3.—Egingo ote da onez-onean al-
daketa ori?

«Or dago koxka. Ni gero eta gu-
xtiago aritzen nau Che Guevararen
jokabideak. Baña Camilo Torres eta
Domingo Lain bezelako apaiz-gerri-
leroenak ere.

An zer bait egin bearra dago. Zirt
edo zart.»

4.—Elizak zer egiten du?

«Orixe da ain zuzen ango gazteek
ere galdetzen ditutena. Eta orixe
berbera duzu gure kezka: «zer egi-
tendu gu guk jende errukari ori
diru-aldeik, jakintza-aldeik eta gi-
za-aldeik jasotzeko?»

An ere gotzai geienak aundizki,
aberats eta angintariek in lotuta
ikusten diru erriak. Eririk urrutu bi-
zi dira beren jauregietan. Geienek
ez dute ulertzen aurrelarien joko-
biderik.

Ari dira, ordea, apaizgai eta apaiz
gazteak esnatzen. Beartsuena urbil-
du nai lukete. Auen aldeko burru-
kan lan egin.

Gero eta nabarmenagoa da era
ontako apaizen eta gotzaien arteko
burruka eta etena. Gotzai askok ez
bait dute onelako jokabide berriak
onartzen. Sinisgabe eta komunis-
tatatz jotzen dituzte.

Helder Camara eta onelako ale
batzuk bakarrik dira gazteak eta
beartsuak ondo ikusiak.

5.—Angoa bakarrik ezin galdetu-
ko ditzut. Zer iruditau zizun Euska-
lerria?

«Zearo erdaldundua egongo zala
uste nuan. Baiña bai zera! Trenean
sartu ordurako barra-barra euskeraz
mintzaten zan jendearekin topo
egin nuan.

Ori onela pentsatuz sermoia er-
deraz egiteko esmotan nintzan. Ori,
ordea, astakeri aundi bat izango
litzakela jabetu naiz. Orregatik ne-
roni euskeraz atzenda nagalakoa
On Ramon Aginagari deitu diot itzal-
dia egitera. Zer ere erri bakoltzari
bere izkuntzan itzezin bear zailo.

Leen baiio euskal-zaletasun aun-
diagoa arkitu dut. Eta ori pozgarri
zaigu benetan atzerrian gabiltza-
noi.»

Ederki Agustín. Eskerrik asko. Ea
Usurbilen, 14'an, ematen duzun
lenengo Meza Nagusiak indar-berri-
tzen zaituan. Bat egin dezazula Mi-
xio-lurretako beartsu eta bazter-
tuekin.

Zorionak!

M. ATXAGA

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

HERNANI, 4

DONOSTIA

Baserriaren alde EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyak
Ongarri ta abonoeak
Beler Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurreartzea

Baserri, lur-tresnak ta aber

Torelavega'ko Perira joan
etorriak



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK.
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Ali-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería'a.

Astean Iru aldez:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amillola, 13 ta 14 - DONOSTIA

Tefnoak: 25.457 eta 26.987

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETUXA

Urrutizkiñak

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

IRAKURLEEK
DIOTENA

GOIERRIKO

ANDERENOERI:

Biotz-biotz eta gogo onez

Askotan esan dut eta berri ere esatera noa, euskeraren bizi eta euskal-oiuren irautea ikastolaren baitan dagoela. Orreagik euskaldun guzikiak salatu bear dugu ikastolaren laguntza. Gogoan atxiki bezate, beraz, anderehoek, zer eginkizun bizieta ematen zaien. Gurasoen ordeko zerate. Aiei lagundu bear diezue, Ez auztu gauza bat; Euskalerriko ia guraso guzikiak fededun gerala eta gure umeak gurean fedean azitzea nai degula. Beraz, anderehoek, quiz na orotan lagundu bear diezue Orreagiko jartzen ditugu gure semeak zuek eskutian. Ez dut esan nai «Kristian ikasbide» guzia umei buruan sartu bear diezutenik. Orotan ezer gutxi irabaziko litzake, denbora asko galduz. Itzeziezue umei Jainkoaz eta lagun urkoaz. Jezus bere garaiko umei itzezien zere bezala. Baina, itzezi! Umei lagundu egin bear zate Jesusgana joaten: ez baztertu, ez atzundu. Orretaz gainera, erakutsi zuek idazkian aipatzen dituzten gai guzikiak: badakizute zereginik...

Esan orain garbi Jainko zale zeraten ala ez. Jainkoa aipatzen aul deute itoz umeen aurrean? Zuen eskolako atalburuetan jartu bear zenuteke idazkian au: «IKASTOLA ONTAN ERLIJIJA ERAKUSTEN DUT» «IKASTOLA ONTAN ETZAIJE ERLIJIORIK ERAKUSTEN UMEEI». Garazak garbi jartu: ez ibilli izkutu. Orrela jakingo dute gurasok euren umeak zein ikastolara bidali. Zuek dituzten bezala: «Handiagorik!! Orain, bukatzeko galdera bat: «Goierriko andereho talde» en izenean azaldu dan idazkal ori, zeok egia aul da ala beste bati eman diezue egiteko? Nik ez ditut Goierriko anderehoak ezagutzen. Alere zuen lana ez dala esango nuke. Zuek egia izan balitz, askoz ere argiagoa, errazagoa, soflagoa aterako zan.

ELIZALDETA MIKEL

Amorotoko maixua

Z. ARGIAren 377. gn. alean. Amorotoko maixuari buruz, lantxo bai argiatu zan. Harezkera maixuak eskutitz asko hartu omen du, batzuk izenpetuak eta besteak izenik gabekoak. Oña emen ala erantzun dion Manuel de Elezkano bilbotarari. Z. ARGIAK gauza bai esan beharra dauka emen: Juan Anjel Exeberriak fotokopia eta bere lerroak apirillaren lehen-biziko egunetan bidali zituan onera, baiña piskaren bat orrazkie eman zitzaion idazlearen mahai-gaietan izkutu eta galdut egin zan. Arkitu bezain laster argiatu zan. Beraz, ez dezagula bota Juan Anjel Exeberriaren bizkar matxuren idazkian azaltzen dan atlekia: «Zor que se ensañó conmigo...», diotenean. Gure errua izan bait da.

Amoroto 29-V-70.

Muy Sr. mio:

Acabo de recibir su att.ª y amable carta en la que me manifiesta su justo disgusto a la vista del artículo publicado. Sinceramente agradezco sus palabras y sobre todo su nobleza al no ocultar su nombre y dirección, cosa que han hecho otros, y así hacer posible que pueda dirigirme a Vd. con la más completa sinceridad. Quiz no me crea, pero vine a Vizcaya con la mayor ilusión de ejercer mi profesión y ser útil al pueblo que me correspondiera, tratando de elevar su cultura y su educación integral. Desde el primer día procuré trabajar, en los pueblos en que he estado, tratando de llenar los Cuestionarios establecidos para la Enseñanza Primaria. Así ha ido pasando el tiempo, hasta que vine a Amoroto, y donde en mi deseo de procurar conocimientos a los niños, y que estos conocimientos fuesen entendidos en el idioma en que están escritos, creí necesario, a instancias de la Inspección, fomentar en la Escuela la conversación en castellano, pues creo que la mejor manera de dominar un idioma y comprender los textos escritos en él, es hablandolo. Es muy importante el idioma materno, que yo sinceramente reconozco, pero ¿desear que sus hijos no aprendan también el idioma nacional? Pues bien, a la vista del poco éxito alcanzado, cometí el GRAN ERROR que nos ocupa, tratando de conseguir con castigo lo que no pude conseguir por convicción. Quiz influyera en ello mi vida de estudiante en el Seminario, pues estuve ocho años. Los tres últimos años de Filosofía, que estaba escrita en Latín, nos obligaban a hablar en las clases en este idioma, castigándonos con copias de «No se habla en castellano», cuando lo hacíamos. Por supuesto que ellos no odiaban el castellano, sino que con ello trataban de hacernos comprender lo necesario que era el latín, si queríamos aprender Filosofía.

Esta ha sido mi falta, que reconozco pueda llenar de indignación e improperios a cuantos hayan leído su publicación. Si he sido culpable en la forma, he sido inocente en la intención, ya que yo, conscientemente, nunca he despre-

ciado a Vizcaya, ni a sus costumbres, ni a su idioma, pues al castigo no me llevó el desprecio hacia el idioma materno, sino mi deseo de enseñar. ¿Cometí un error? ¿Quién no los comete, al menos indeliberadamente? ¿Por un error pedagógico debe ser una persona condenada, recriminada, odiada, amenazada y no sé cuántas cosas más, como he recibido en anónimos?

Por marzo, creo, estubo en este pueblo un señor que se enteró del castigo que daba a los niños. Por entonces reuní a los padres en Junta Municipal, para tratar del problema y todos se manifestaron conformes con mi actuación; a pesar de ello reconocí lo poco pedagógico de mi proceder, y a partir de entonces jamás he castigado. Si he procurado cumplir con mi deber, y hasta he tratado de ir asimilando el «euskera» por unos cursos que el mismo autor del artículo, generosamente, me ha ido enviando, ¿por qué se ensañó conmigo en esa publicación, en vez de ver y comprobar si mi actitud había cambiado?

Sé que mi rehabilitación será imposible, y por otra parte temo que ni Vd., ni nadie me crea. ¿Qué

EUSKAL DISKA BERRIAK

ANDONI

CINSA CIN-163

Maiteko zaitut neska. Gaueko ilx-tasuna.

Single deritzan diska mota horetakoa duzute hau, bi kantu bakarrak bait ditu. Lehen ere bi kanturakin osatutako beste diska bat du Andonik, Cinsa bilbotar etxe beraz egia.

Anthony Songer izenaz ezagutzen dugu erdal munduan gazte hau, izen hori erabil bait zuan gaurko ritmo kantuen abeslari bezala espainian barna ibili zanean.

Orain euskal hizkuntza darabil bere kantuetan ta argi nabari da ba dakiela zertan ari den, ezagutzen duela alegia bere eginkizuna.

Dakigun gauza da, Bilbo aldean arerra biziki ona izan duela bai oraingoak eta berdin lehenengo diskak.

puedo hacer? Sólo me resta librarles de mi presencia, saliendo de Vizcaya tan pronto pueda, que si Dios quiere será pronto. Pero desearia que me creyeran: marchar sin odio, sin rencor y jamás hablaré mal de la tierra en que he sido feliz hasta ahora.

Nuevamente agradezco a Vd. la oportunidad que me brinda con su dirección y espero que lea estas líneas sin odio. Ahora que conoce mi falta y mi intención al cometerla, le agradeceré me conteste con su juicio.

Le saluda afectuosamente,

HORACIO SANTIAGO ROMERO

IBAIK

CINSA CIN-165

Amets / Udaberria / Gauza bi / Mentxu.

Gaurko giroari jarraituz hona hemen beste abeslari berri. Bizkaiko Euba herrikoak ditugu Julio Esturo ta Xabier Bilbao. Beren lehen diska da eta guretat oso ezagunak, ez baldin ba dira ere Bizkai aldean oso ezagunak eta maltatuak dira. Jendearen etengabeko eskaerari amore emanaz gure deuten diska hau, ta orain jendeak esango du gustatzen zaionez.

BENITO LERTXUNDI

HERRI GOGOA HG-14L

Ezin uka / Ilunpetako gizon / Ekaitza / Umeak ere jakin dute / Aita saldu nazu / Sasi intelektualak / Zenbat gura / Triste jartzen nazu / Urak dakarrena / Gure bide galdut / Ez kanta beltza / Egia / Jabetasuna.

Bai, azkenean aterea da Lertxundiren diska handia. Luze joan da zai egote hau, baina ez da alperrikakoa izan, benetan diska egokia bait dugu orain gure eskutian.


Lehenengo disketan dituen lau kantu jasotzen ditu L. P. honek, lau kantu sonatuak eta beste bederatz berri.

Diska txukun bat ez denik ezin esan, ta zalantzarik gabe esan ditekete, Benito, diska, hontan biziki bera agertzen zaigula.

Kantu polit eta oso borobilik baldin ba du ere, ez da batere igarle izan behar. «EZ kanta beltza» izeneko abestia nun nai atsegin osoz entzungo dala esan ba dugu. Besteek beste.

Zorlonak, Benito.

JOSEBA AGIRRE




TXIMIST - INDAR SAILLA

Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA

Departamento

HIDRAULICO

Baneketa ta Teknika laguntza:

REX - ROTH GMBH Alemania

TUROLLA Sp. A. Italia

OLEODINAMICA RUHRITAI Sp. A.

Italia.

Goimendi - Automatismo



Lantegi ta landolak:

Jolastokieta (Herrera)

SAN SEBASTIAN

Urrut. 53840 (Iru ari) ta 51860.

Telex. 36172 GOIME E

Erakusketeta ta denda:

Iparragirre, 15 - SAN SEBASTIAN


Ordezkaritza:

Euliojo Serdan, 18. Urrut. 220535-36

VITORIA



Benito Lertxundi



Andoni

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

GURELESA



Gipuskoo'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne solila (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gafla
- Gurtia
- Yogur
- Batidunak

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

EUSKAL ERRIETATIK

pasai antzio

Euskalerrri'ko Argazki-zaleentzat
IV'garren Sariaketa

O.A.R.G.U.I. ALKARTASUNA alkar-teak, argazkizaleen lana goraldu ta zabaltzeko, IV'garren argazki sari-keta antolatzen du.

OINHARRIAK

Parte hartu lezaketenak: Euskale-rrian jalo edo bertan bizi diran zale guztiak izan ditezke. Ipar-aldiko hi-ru probintziakoak ere bai noski.

Gaiak: Zuri-beltzean ateratako argazkientzat, zer nahi gai erabilili leike. Margotan ateratzen diran dia-positibaentzat, euskal kirolak edo dantzaen gaia erabilili beharko da.

Argazkiak: Leikide edo konkur-sante bakoitzak, gai bakoitzaren ge-nieñez bost argazki agertu ditzake, orain artean Euskalerrian aurkeztu gabekak, eta inun sarituak izan ez diranak, Argazki-kopirik ez da on-hartuko.

Neurria: Zuri-beltzean ateratako argazkiak 24 x 30 cm. neurrikoak izango dira. Margotan ateratako dia-positibak berriz, 24 x 36 mm. neu-rrikoak.

Agerpena: Zuri-beltzean aterata-ko argazkiak markorik gabe, baiñan komenigarria de paper sendago batez gogortzea, argazkien neurri-ta makurtuaz. Margodunak berriz, lauko edo marko baten barruan. Kontrolde edo atze-aldean lanaren izena eta lema idatzirik jarriko da. Margodunetan laukoan bertan idat-ziiko da. Leikide bakoitzak sobre baten agiriaren lema idatziko du eta barruan argazkien izena ta egile-aren izen abizenak, zuzenbidearekin batera bidaliko ditu. Margodunetan adieraz beharko da ere nun atea-rea dan.

Zuzenbidea: Sarietara agertzen diran lanak, zuzenbide hartara bi-daliko dira: **Establecimiento de D. Ricardo Valverde, Blas de Le-zo, 14, PASAJES (Gipuzkoa).**

Epea: Lanak garagarriaren ogei ta bost bitarte onhartuko dira.

Erakusketak: Pasai Antzio'ko herri-ateko liburutegian erakutsiko dira sarietareko onartutuz diran argaz-kiak. Hasiera uztailaren 4'an eman-gu zailo. Amalera, buakera, berriz, uztailaren 12'an. Sariak ere egun hontan bertan banatuko dira.

SARIAK:

DIAPOSITIBETAN

- 1.ª Txapela, kopa ta 4.000 pe-zeta.
- 2.ª Kopa ta 2.500 pezeta.
- 3.ª Kopa ta 1.000 pezeta.
- 4.ª Kopa ta obariak.

ZURI-BELTZEAN

- 1.ª Txapela, kopa ta 3.000 pe-zeta.
- 2.ª Kopa ta 2.000 pezeta.
- 3.ª Kopa ta 1.000 pezeta.
- 4.ª Kopa ta obariak.
- 5.ª Kopa ta obariak.
- 6.ª Kopa ta obariak.
- 7.ª Kopa ta obariak.

SARIAK PASAI'KO ONENENTZAT

DIAPOSITIBETAN

- 1.ª Kopa ta obariak.
- 2.ª Kopa ta obariak.

ZURI-BELTZEAN

- 1.ª Kopa ta obariak.
- 2.ª Kopa ta obariak.

Epaia-mala: Pasai'ko Udaletxeak eta Gipuzkoa'ko Argazki Alkartek izendatutakoak osatuko dute. Euren erabakia alda ezinikoa izango da.

ZAPATERIA ZUBILLAGA

Zapataria naiz ogibidez,
ta noan zapatengana,
sinistu ondo gelditzen dala
esku izutzen dedana.
Nola konpontzen, ala tinta-
[tzen,

txukun egiten det lana,
olako lanik baldin badezu
azaldu zaite nigana.

Prim, 53. Donosti.
Urrutizkiña: 23443

mutriku

BURUMENDI MENDIZALEAK.

Urtero bezela maiatzaren 17'an, os-patu zutan Olatz bailieren urteroko jaialdia, azken-aldiko edo finalista-ren sari banaketa.

Ona emen sariak jaso zituzten neska-mutilen izen-abizenak.

Arizmendi'tar Bitor, Barrenetxea'-tar Juan, Beristain'tar Yontxu, Bas-teretxea'tar Pedro, Andonegi'tar Yo-saba Andoni, Iturte'tar Angel M., Arrizabala'tar Juan Luis, Ipara-girre'tar Milagrosa, Urreisti'tar Ne-retxu, Urreisti'tar Gema, Arreitua-nandia'tar Arantxa, Rementeria'tar Rosarito, Urreisti'tar M. Loli, Urreis-ti'tar Narsisa, Ozkorta'tar Belen, Maiz'tar Itziar eta Illaramendi'tar Maite. Gogor ari dira Burumendi'tar-rak Apaia eta Arno bitartean arki-tzen dan gorde-lekua berriatzaten: lan auek bukatzean oso ja-laldi bi-kaila antolatzeko asmatan dira.

¿Noiz? Ez dakigu, baina, garaiz adi-terza emango degu.

Arriz josia dago
Anoren gorputza,
«Arremietan» zear
Apaindik goruntza.
Mutriku izan zuan
Jaumaren laguntza,
Mendi artan jartzeko
ARNAKO GURUTZA.

EROTZAK.—Maiatzaren 23'an, Fe-brolen, uste-ustekabeen il zan La-sertuta eta Bastida'tar Fernando, ma-riñel jatorra. Gure samia-egurra be-re alargun Arrieta'tar Nati, seme-alabotxo eta sendikoei.

Maiatzaren 26'an, 49 urte zituela-rik Jaumak bereganatu zuen gure lagun jator zan Arakistain eta Ola-be'tar Patxi. Samintasunean lagun-tzen diegu bere emazte sendiko guztiak.

Baita ere gaixo luze baten ondo-ren il zan Beristain eta Easola'tar Jesus.

Jaumaren Biotzaren Bilerako idaz-kari zintzoa izandua. Artu bezate bere emazte eta seme-alabek gure samia-egurra. Irakurle, ototz bero bat beren arimen alde.

EZKONTZAK.—Ezkon-deietan arki-tzen dira Barrenetxea eta Arriza-balaga'tar Alejandro Iparragirre eta Urreisti'tar Lolitaren: Arrieta'tar Austin Alberdi eta Barrenetxea'tar Bibentia'rekin. Zorionak guztioi.

LAU

¡AGURI.. PELLO JAUNA



Naigabeturik uzten gaitzu
ilberriakin batera.
¿Nola aín laister aldatu zera
mundu ontatik bestera?
Erri osoa negarrez dago
umezurtz baten antzera.
Gure Jaun onak ots egin dizu
santu guzien artera,
Apaltasunez irabazirik
dezun saria artzera.

Zubeldia ta Txakon'tar Pedro
apaiz jaun agurgarria,
Lizarza'n dagon baserri baten
ZELAIN'en jayo ta azia.
Txikitandian gutzit apala
arrokertik gabia,
Jaungoiko-zale zintzo-zintzoa
oitura zaaren zaila,
Akatz gabeko apaiz jatorra
euskaldun garbi-garbia.

Ogei ta lau bat urte inguru
Mutriku ingaro zuan,
Kristoren aldean lan egiteko
beti gerturik zegan.

Pobretasunez bizi izantzan
pobrean malte balzuan,
Kariadea egiñaz sarri
kalean edo auzuan,
Orain zeruan pozikan dago
betikotasun osuan.

¿Amaia aldiz ikusten gendun
umetxoekin jostatzen!
Kristau-bidea erakutiaz
Kristoren itza zabaltzen.
Aitorlekan etengaberi
ainbeste gizon aitorzen,
Gaxo zeudenak alaitu eta
beartsuari laguntzen,
Sendi arteko aserraldiak
baretu eta paketzen.

¿Zenbat zaar eta zenbat gazte
bide txarretik alendui!
¿Zenbat langille lanik gabek
ogibidean zundui!

¿Zenbat oker ta zenbat ezbehar
aialik ondoren konpondui!
Ate ondora mesede oske
josten zainari lagundu,
¿Zenbat olako egingo zuen!...
¿Jaungoikoak jakingo du!

Beti gogoan izango degu
etzailu aitzuko inondik.
Ainbeste malte gendun D. Pello
izkutatua mundutik.
Arrezkerotik ezta atertut
malkorik gure begitlik.
Biotz-biotzez ototz dezagun
bakoitzak bere aldetik.
Gure ototzak ar zailkigutzu
zeindui gaitzatu zerutik.

ANDONEGI'tar ZIRIAKO

ONDO BADABILL
Otsein DA



azpeitia

Maiatzaren hogei-ta-lauetan harri jasotzailek gure herrian. Arri jasot-zaile trebeak ziraner gero, jende as-ko bildu zan berak ikustearren. Gu-re herria euskal kirolen hiri nagusia bihurtzen ari dala esan genezake; baina, jaieto izaten dugu zedozet. Kirolak an geroan ezin utzi al-tatu gabe gure pelota lekuan egiten diran pelota saioak. Umeak, gazteak eta «afizionadoak» larunbatero eta igandero sariak jasotzearen eta jen-dea pozietzen, bere izerdiak atera-tzen saiatzen dira.

Maiatzaren hogei-ta-seian elkar-iz-keita bat Soreasu zine gelan. Gure erretore jaunak herriakin hitzegin na-hi izan du, denon nahitari erantzut-zaaren arazo batzuk erabakitzen. Arazo hau dugu: Inazio Deunaren omenez egiten diran elizkizunak nola ospatu. Etzan erer erabaki, aditu dedanez. Ekainaren hiruan jarraitze-koa da elkarrikizkeita. Urrungo batean gai honeizaz zehatzago hitzegino dugu.

Maiatzaren azkeneko igandean Xo-xoleko eguna ospatu gendun. Lagun Ona-ko mendi zaleak antolatut zu-ten, eta bai jendeak erantzun ere. Hamaiketan Meza, labor eta egoki ospatu genduen, gero txistuaren so-fia lagun genduela denok dantzan. Sarien banaketa eta aizkolarien on-doreen berriz ere dantzan, Eguraldia zoragarria eta denok pozik. Arpegi illun eta jantzi zeharre batzuk ere agertu ziran, baina sei edo zazpi ba-karrik ziran. Nor etzan giro hartan, dantzari eta abeslari sentitzen! Nahi gabe ere, alai gihan denok; han etzezoen goibel agertzerik. Arrazoi zuan Voltaire'k gure herriagatik honara mintza zanean: «Euskal he-rria, Pirineo mendietan, dantzatzen eta abesten duan herria da».

ZUBI

elgoibar

MENDAROKO GAZTEAK

Benetan harrigarria da, gaurko zenbait zaharrek, gazteengan ezarri nahi dituan akatsak. Egia da, za-har eta gazteen artean, eten-une bat izan dugula eta urbiltze lana egin beharrean, urrutiratze lana age-ri dala. Adibide edo eredu bezela Mendaroko gazteak datozkit buru-ra. Ez det esan nahi Mendaron le-henago ezer egin ez danik, baina bai gaurko gazte hauek egiten ari diran lanak betean zagarriak dirala. Horregatik diot, ez litzake-ala harritzekoa izango, gazte haue-gan zerbait utsune arkitzea edo hauen lanaz behar haina ez baliat-zea. Baina nahiago ditugu akats eta guzi, gazte hauen antzeko eus-kaltzaleak. Alfabetatze lana, bertso-lari txapelketan, «zesta y puntos», dantza talde bikainak eta habar eten gabe beti lanean eta herrian euskal giro sakon bat sortzen.

Horregatik, ZORIONAK homengo taldeak, eta, jarrai bide horri.

HARA NUN DIRAN...

Aurtengo Maiatzaren 1-ean, itsas-ertzezko herri batetan, ezkontza bat zen eta ohi dan bezala, jan-edan bapo egin ondoren, abestuzten ez gera txarrak Euskaldunok. Haleko baten, asi dira gazteak abesten eta zer abestuko eta «Hara nun di-ran»... Baina abesten asi besterik ez, ezkondu zanaren aitzak, bazka-ria berak ordaintzen zualoko edo, haserre bizian eta karraxika dio: ¡Xo! Ez degu behar politikarik eta zaudete isilik! Eta guziek isilerazo. Baina gazteak ezin isilik egon eta ondoren «La mujer española»... abestu omen zuten, eta hemen agureak ez omen zuen ezer esan. Nunbait hemen ez zegoen politikar-rik. Egia da bai, Afrikako basatiak eta Euskaldun batzuek gaitzesten dutela bakoitzaren hizkuntza.

HERRIKO-ETXEA

Azkenengo «plenoan» 12 herri-agintaririk 8 ziran eta 13.000 he-rritarretatik hiru (3) bakarrik. «Pleno» honetan ezta-baidatu ziran gaietan, herriak bai zuen zer ikusi-rik franko, baina herriarrak lo-zo-rraan. Baina, goazen aurrera, eta, bai guziak hemen aitzazko luegegi direnez, bi bakarrik aitzatuko ditu-gu. Zera, Goiko-errotako «presia»-ren jabe Udaletxea egin dala. Uda-letxeen asmoa da, «presa» honi zati bat kenduaz, paxto leku polit bat egitea. Beste erabaki bat zan, alegia, ikastolari diru-laguntza em-tea. Horretarako azalpen egoki bat egin ondoren, 50.000... laurlekore-kin laguntzea erabaki zan. Ta, gure aldetik ZORIONAK erabaki hori hartzen parte artu zuten guztiak.

ARTIKULURIK ONENAK:

Lehenengo artikulua: «Azkoitia-rreri, Kristautasun joeraz». Herri-ko batek. Beste gauza askoren ar-tean begira zer dion: «...ikusita sumatzen degunez, gazteriak, ge-hiegizko menpekotasuna die eliz-gizonel, behar etzuten gai eta egin-kizunetan».

«Guk gutarteko gizartea bere az-ken osakuntza eraman behar de-gu, bakoitzaren lekuan, tokian to-kiiko, izanik».

Beste gauza asko aipatzen da be-netan alpagarriak.

Bigarren artikulua: «Hilak Fran-tziarentzat». GU bere poztuten ga-

ra apur bat esnatzen ari dirala ja-kitean. Hortan datza Euskera ba-tzeko arrazoi sakona; Bat gerala esaten badugu, Euskera bat behar dugu. Nola lortuko dugu herri bat, elkar ententidzea lortzen ez badu-gu. Herri bat, Hizkuntza bat. Hiz-kuntza batzen dugun eran, herria batzen eta askatzen joango izan. Ondo dio bukaeran: «Aien bearra dugu guk. Gure bearrean daude aiek».

Aipamen berezia, Gurutz Anso-laren «Hamabi urte euskal-ekonomian». Herrietako barri-emaitaetan: Azkotiko Orolamendi eta Mutri-kuo LAU taldea.



Hemen dituzte hiru txapelkun. Euskal jakintzako txapelkun gaine-ra. Peli Aldazabal-en oroimenez os-patu zan Euskal lehiaketan eta Hiru mailatako txapelkunak. Hirurak El-goibartarrak. 1-go mailan Asier Etxe-berria, 2 garren mailan Lurdes Pe-naiba eta 3 garren mailan Ana Etxe-berria.

Orain 8-10 urte, gure herriko batek idatzi zuen, Elgoibarko kalean pe-retxikuak biltatzea errazago zala, bi haue Euskeraz izketan baino. Gaur, zorionez, perretxiuak baino ugriago ditugu Euskeraz mintza-tzen diran haurrak eta gero ta ge-hiago izateko, asmatan ari gera lanean.

TALDEKO MARISABELEK

PATRONATO SAN MIGUEL

Aur atzeratuen aldeko El-karte bat ba degu Gipuz-koa'n: San Migel'en zaitza-pean sortua. Elkartek onek lehiaketa bidez Irakasle eta oposizioak egiñak diran ema-kumezkoak bear ditu. Irakas-le auek, Irakasintza Senda-zaille saillean gaituak izan bear dute. Ta gailferra, eus-keraz itzigiten dakitenak.

Norbait ortarako balitza,

deitu DONOSTIKO Apartado 719'ra.

NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

Ez. FAGOR,ek

sukaldian



arratia

BERRI-LABURRAK

Arantzazutur ARANTZA gazteriek beraren bizkar artu dau erriko jaien egitaraua. Kitaradun abeslari euskaldunak, espadantziarik eta txistulariak izango dugu, ba trabarik sortzen espada. Zozketa erria be izango dugu ihun izan ezitran saiakaz. Landak zear bedarrez, maluki ta zomorroz gizenutako oillasko erraldioak, gorringo biko arrautzez betetako otzara andiak, Errekaigorri aiteak Errioiatik berenberegiz jairako ekarria daukan ardu gozodun upela, Juli tabernariaren edari zaararak, ipuzturi nalez ezkontzarako Zalbidon eginak diran baztariak, Iurrinok arrapauko deuskuzan amonrain edo arrainkaria a. ta. a. Gazteria bularitsu onen asmo ta burutapenak azi ta gizenzeko, artu itusituan eta txoriaka Jontxuk eskeiniako deuskuzan zozketa-txarielak.

AREATZA (Villaro)

Adiskide maite Egileor'tar Pernando zanaren urteurren-meza izan dogu. Beragaz, batera mendirik mendi ibilberrara izan gendun ainbat lagun alkatu, ta agurtu giñan. Emen izan da Ladis Sarasolaka, saket baitan Z. Argia ta Anaiausua bestean dazala, bai-ta Zakari be. Onen bidez jaso dodaz Yurre'tar Yulen euskal idazle erotsuaren gorritziak. Eskerrik asko Yulen, errikide maite; eta, artu egiaz asteroko zoli onen egoiten bializen deusidazkan besakada ta agur berok.

EZKONTZAK

Uribe'tar Garbiñe, Garako'i'koa, galiziar mutillagaz ezkontu jaku. Yayo'tez galiziarra, izatez baita, Euskalerri maitea jatorra. Beroni ta berailakoa nire txalorik heroenak.

Letxue Urkitekoka be azke ta bakar-bizitzaiaz aspertu da noizbaiten, eta bizikera barriari eldu baiño leen, gero zer izango be, lagun artiko bazkaria izan dau Errekaigorriren etxean, Igoeren.

Emen aialtuen dodazan ezkontzetatik etorriko diran lora barriak be zabalik izango dabez Z. Argiaren atek. Genu bere auzgindu gaitzean ba, arripideun eginiñ, laguntza eskeintzen. Zorioneko izan zaitze.

A. LANDAUUELA

tolosa

ARALARKO MIKEL DEUNA

Korpus egunez zenbat lagun bildu ote giñan euskal mendi onetan? Eundaka beribil txiki eta aundi. Guardan etxetik asi eta San Migeletik barna Arizuetara gailurreraino, bide eriz guziaz arturik.


Amar millatik gora izango giñan eleiz-aurreko zelain ipiri zuten aldarean emandako meza-nagusia aditu genuenok; Eta gerozko prozedura ikusi.

Egun bikain, orze garbi eta eguzkitsu. Egunak berak zemaigan alaitasunaz, txistu-otsak eta euskal abesitak eman zigutena izan gendun ere.

Beeko errietan, gero, luzapena. Eta oreatzekoan, nekaturik baiñan damurik ez, balizk gogoz beste orrelako egun jator bat igortzeko.

OARGUIKOAK ERNION

Esan bezela, loreak jaiotzen diran il onen azken egunez OARGUIKOAK Ernio tonor-arkaitzen bildu ziran. Meza eta sermoina Legazpiko apaizaren auz joan zan. Jolasalditxo bat gero, ta bazkaltzera Tolosako Urkizu ballarara jetti bazkaltzera.



1896

1969

GIPUZKOA'KO PROBINTZI ERATETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru berretan gure
"PRESTAMEN SERBITZARITZA" (Servicio de Prestamos)
balla zaitze

Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Zure baserria erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak obetzeko
Jakindean jarri zaitze Donostia'ko gure
12 ofizietan eta Probintziako 63 sukursaletan

Bazkarian eta bazkal ostean ez zan umorerik falta izandu. Eguraldiak ere lagundu zigan eta guziok pozik. Mendi tonorretik begien zabalerak euskal izatea. Berakoan, Mendikule aspilik igarotzean txori eta oroitza, Gizealega bazkalizerakoan. Eta egunaren amaitzeaz, etzirako txaropena.

OLAZABAL DAI XABIER

eskoriatza

Udaberriari begira igaro degu maiatz guzia. Alere, Otala zelaiako eguna oso ona izan zan. Gazte asko joan zan, gure txistulari eta dantzariak aurrean ziraia. Eskorak zuri, gure txistulari bikain. Orain arteinokio zelaletuna izan deza zula aurrera ere, gazteei erakusteko!

Iparragirrerri eskerrak eman bearean nago. Irakurri nuan zure azkeneko idazti polita ta sakona; nik eze poz pozik emango nizuke zuk bezela bostekoa. Eskerrikasko. Arzazute zorian bereona Jauna-arte egunean semetxoren batek leenengo jaunartzea egin ba zuen.

Askotan, aurtan bezela, uste izaten degu elizkizun pozgarri ori ikusi gabe pasa bearko degula. Beldur izaten gera gure izkuntzan ezertxo entzun gabe irtingo ote geran.

Azkeneko zapatuetan zer edo zer ikasi degula esan ditek, euskerazko mezarri erantzuten. Leenbizi, pa-peretatik ikusi bear eta pozik ikusten ditugu paper oiek jar-lekuetan. Orain igande gutxi, elizan erdalduñ baten ondan aurkitu nintzan. Abesti-ordua eldu zanean, arrituta gelditu nintzan, nolako ederto "Ogi zerutik" abesten zuan aditua. Zorionak emateko gogoia eman zidan.

Guk, euskaldunok, indar geiago eman bear genioke goizeko leenengo meza orri igande eta jaietan.

ERIOITZAK: Joan dan illean iru edo lau izan ziran, euren artean Abasolo-tar Luzio gizon jatorra, Antonia ta Luzia emakume zintzoak eta orain Iramburu ta Zabalatar Nemesio, Jaun Onak danak beragan euki ditza.

EZKONTZAK: Ugari izan dira illabete onetan. Eten gabeko zorioria opa diet daniel.

ERRITAR BATEK

MOTOR ELEKTRIKOEN KONPONKETA



GORDAILUAK


Bar Deportivo aurrean
Nueva, 3 Urrut: 58357
ANDOAIN

Olabarria'tar Jesus

Toska (portzelana) - Ontzi - Sukaldeko salgaiak - Kristal jan-tresna - Eskuera-kutsiak.

Barrenkale, 22 — Urrut: 810538
DURANGO - (Bizkaia)

EREÑOZU



EREÑOZU BAILLARAKO JAIK

Pake maitasunez elkartuta gora dezagun Antonio Deuna Poz alaitasunez indartuta jarrai zintzo bere bidea.

Erri bakoitzak aukeratua dauka antzintatik bere zaindaria ta egun jakinetan zuzentzen ditut jaialdi batzuk bere omenez.

Eun urte bete ziran orain bi urte, Erefiozuko Baillarak bere Elizatxo jasoa, Antonio Doatsua Zaindaria aukeratu zuala.

Gerotzik etengabe, urtero-urtero, Antonio Doatsua egunez eta ondorengo igandean, ospatzen ditut Baillara onek, Ermanituk sei Kilometro Urumea ibai etzean Nafarroa bidean dago auzo au, bere jai aldiak.

Aurtengo ontan ere Erefiozu Baillarak argiritu du bere jai-aldiatako egitaraua.

Bejondeizuela jaialdi antolatzeok! Eder, bikalifake eta pozgarriak an-

tolatu dituzuten jai-aldiak. Zuek, esan oi dan bezela, etxeakoi!

Antonio Deuna da beraz zaindaria. Bere irudi ederre, oraindik sei urte berritu ta aunditutako Eliza Nagusiko aldre nagusian, danak bedekintu naiean, antxen dago trinko eta ermo.

Alderdi guztietatik bilduko dira erromesak, Antonio Deunari eskerrak emanaz, bere lagutasuna iritxi ta asmoak aurreruntz betetzeko amets egina.

Ongi etorriak guztio gure Antonio Deunarengana!

San Antonio egunez mezak goizeko sei etan, zortziretan eta amaretan izango dira. Igandean berriz, ilunabarreko besperan zortziretan eta goizean 6.30'etan, 8'etan eta 10'etan meza nagusia.

Jai-aldi alai ta pozgarriak bengan Erefiozuko jaiak!

Jai-aldi auek badaukate beste errietako jai-aldiak ez daukaten zerbait berezi.

Egun guztian Eleiza zabalik egon oi da. Iñor ez da sartu-atera bat egin gabe, Antonio Doatsuari ikusaldi bat egina, edo kandelak edo meza dirua eskeini gabe.

Zaar eta gazteentzat beste jai alai naikoa izango da.

Euskal soñu alai. Trikitixa eta txistu soñua, Bertsolaririk onenak. Bola ta Tokako txapelketak, Euskal dantzak eta abar.

Guztiok familian elkartuta, lagun arte alai, neurriko jan-edateak, kristau lege zuzenak agintzen duan eran, danok elkarrekin pakean, plaza ta kalean, poz alaitasunean Antonio Deunaren egunean.

Jolastu gazte, alaitu zaar. San Antonio jaietan ibili zintzo plaza ta kalean, neurria gorde jan-edatean, alai ta garbi, jolas eta dantzetan.

Aintza Antonio Deunari eta gora beti Erefiozu!

APALA

Claudio Berezartua

ZERRERI TA AROZTEGIA

Urrut: 59150

EREÑOZU - IRUBIDE

Ibaigarriaga'tar Basilio

ERREDIZAK

Goyenkale, 7 — Urrut: 810299

DURANGO - (Bizkaia)

Anboto bar

Maria Urizar

Goienkale, 18
DURANGO (Bizkaia)

RESTAURANTE

FAGOLLAGA

JATORDUA NORBERAK AUKEATUA

GAUZA ERRETAN BEREZIA

Urrut: 59931

ERNANI

Gipuzkoa

Epeleko Jatetxea

Urrut: 59930

ERNANI

Gipuzkoa



Lanas

CONDAL

"TORREDER" izenaundiko artillak saltzen ditu


Kolare askotako aukera

Kalebarria, 7. urte

DURANGO

DURANGO

**Zure aurreste zeedako
euneko ugariago
segurantzarik aundiena**



**BB BANCO DE BILBAO-ko
aurresti libreta zabalduez**

Gurea be euskal arnasa da, ta zure zintotasunean, lan zaletasunean eta gizontasunean daukagu jarrita gure sinistea. ZATOZ GUGANA! Zuk lez euskeraz itz egiten dabean gizon aukeratuak eta prestuak onartuko zaitue.

Aprobado por el Banco de España, con los números 6222 31

DURANGO: Avda. Zumalakarregui, 12

ELORRIO: Berriotxoa Kalean

ASTARLOA GARAJEA

MITXELIN etxearen serbitzua

Garbiketak — Koipeketak — Olio — Egoketak — Zinta
eruatailleak — Gurpilletako goma-konponketa — Goma
berriak jartzea

CITROEN etxearen zabaltzailea

Astarloa, 4

Urrut.: 81 11 23

DURANGO

(Bizkaia)

Bañuelos

IGALI (FRUTU) — JANARI TA EDARIAK

Barrenkale, 15
DURANGO

Urrut.: 81 00 76
(Bizkaia)

Bar Guria

AKEITA GERTAKETAN OSPATSUENA
ANDRA MARI KALEA

Urrut.: 81 00 84

DURANGO

(Bizkaia)

AGIRRE'TAR BIKTORIO

DROGATEGIA — USAITEGIA
ESKU-ERAKUTSI SALGAIAK

Santa Maria, 14
DURANGO

Urrut.: 81 02 39
(Bizkaia)

Joxe Antonio Urbietta, pelotarien maixua

14 urte Durangoko frontoian. - Txinoek pelota-apusturak maite dituzte.



JOXE ANTONIO URBIEITA

Joan zan astean Joxe Antonio Urbietta Durangon arkitu genuen. Baiñan ez uste beti amen izan da. Bere bizian mundu guztian izan dala esan ditek, frontoi famatuaren bidea jarraituaz. Bide luze eta gauz arrigarritz betetako.

—1929-gn urtean Egipton, El Cairon jokatzari ari gihala, gure enpresarioak Txinara joan bear genuela esan zigun. Lurralde aietan ogei urte inguruan izan gihan, Shangai eta Tien-Shin'eko frontoietan. Manilara ere joaten gihan.

—Frontoia betetzen aal ziran lurralde aietan?

—Lertzeko moduan. Eta txinoek

egiten zituzten aposturak galantak ziran. Jendeak txinoak oso «otzak» dirala pentsatzen du, baiñan ez da orrela. Poltsiko beroa gustokoa dute.

—Zenbat pelotari zihaten Shangai, Tien-Shin eta Manilan?

—Talde ederra biltzen gihan: eun lagun inguru. Beren artean Bilboko txaso anaia, Andres Aramendi eta baita donostiar batzuk ere.

Mundu guztian zear ibilli ondoren, 50 urtekin Joxe Antonio Durangon gelditu zan azkenean, frontoi-maixua bezela, mutikoeri zestapunta kirol bikaina erakusten.

—Frontoi ontatik, orain arte, 84 pelotari profesionalak irten dira, eta orain ludi guztian jokatzari aal dira, Ameriketara, batez ere.

—Zenbat ikasle dituzte orain bertan?

—44 mutil, 11 urteetatik 17-raño-koak. Emen ikaskizunak bukatzean, leenengo saltoa ematen dute, Kanariar edo Mallorkan jokatuaz. Eta andik Ameriketara, Miami eta Floridara gienak.

—Zer kondizio bear dira kirol ontarako?

—Begi onak, batez ere, reflejo biziak eta formalak izatea. Kirol onak sakrifizioa eskatzen du txikitandik. Nere ikasleak, mutikoak, goizeko 6'15 tan frontoian izan bear dute, eta emendik kolejora joan. Nuegan au egitea gogorra da.

—Nolakoak dira leenengo ikaskizunak?

—Bi edo iru illabete barru, mutillak frontoi trabeska jokatzan du, eta ondoren frontoi luzera joaten dira. Ordu betekoko entrenametoak dituzte. Astean iru bider.

—Itzein dezagun diru kontuaz.

—Gauko pelotariak Ameriketara diru asko irabazten dute. Lau illa-beteko denboraldeak izaten dira,

eta 600.000 peza irabazten dituzte bakoitzean. Eta orri 6.000 dolar-ko propinak (420.000 peza) geltzen ba dizkiogu, irabazketak ondo xamar gelditzen dira.

—Oiek dira propinak, oiek! Nola eman ditek aibeste?

—Aurten Miami frontoian egin diran aposturak 30 milioi dolar-koak izan dira.

—Orrela nik ere propinak emango nituzke! Eta zuek zenbat irabazten zenuten?

—Gure denboretan, 1925-gn urtean, illeko 100 (eun) dolar irabazten genitun. Orain gutxi dirudi, baiñan dolar alekin gauza asko egiten ziran. Ala ere, gauko pelotariak askoz geiago irabazten dute.

—Gazte bat diru askokin zintzoa izatea... zailada, ez aal da?

—Oraingo pelotariak gu baino geiago pentsatzen dute gauza oietaz, eta bere diruari obeto kontu egiten diote. Diru orri askoz geiago ateratzen diote. Guk irabazten genun diruak bat batean lges egiten zun. Orain ez da ala. Gele-nak ezkondu egiten dira, eta bere sendian jartzen dute diru.

—Orain pozik aal zaude emen de-zun lanakin?

—Bai noski, nere lana dalako.

—Ez aal dezu noizik eta bein zesar-torik artzen?

—Ez, 63 urte ditut. Ori gazte-entzako da. Eta gainera, 45 urte jokatzari ari eta gero, aski det.

—Itz auekin bukatu genun itzaldia. An utzi nuen Joxe Mari, frontoi-atzeko gela batean, zesto pilla baten artean, milla oromenen artean.

XABIER ARCELUS

"GANDARIAS" ERREDIZAK

Zumalakarregi, 15 ta 25

Urrut.: 81 03 21

DURANGO

(Bizkaia)

URZELAY

Andre, Jaun eta aurrentzako edotariko jantziak

Berebiziko Salgaiak

GALERIAS DURANGO

DURANGO: Astarloa, s/n. Urrut.: 81 07 90

BILBAO: Ribera, 2 eta Revilla, 15

GAZTEIZ: Independencia, 18

ZUR-ELKARTE EUSKALDUNA

(Compañía Vasca de Maderas, S.A.)

ETXEGINTZARAKO TA AROZTEGIETARAKO ZURAK — OOL LISTATUAK — OLTZAK

PIÑUTE — PIÑU GALLEGU — GINEA'KO ZURAK-ATE-ZANGOAK — ERRADAPI —

MOLDURA TA KONTRATXAPEATUAK

Carretera OROZKETA

Urrut.: 81 08 91

DURANGO — (Bizkaia)

